1973 — EKAINAK, 10 XXXIII - garren urtea 536 - Zenbakia

zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

AIZPURUA · ALTUNA · AMATIÑO · AMUNSA · ANSOLA · AROSTEGI · ARRINDA · ATXAGA · KORTADI · LEIZAOLA · LEKUONA · MUJIKA · MUTIOZABAL · OTAEGI · SAN MARTIN · TRIKUARRIETA

Euskal Arbola

Don Jose Migel Barandiarani Gorazarre

Arbola aipatuz gero berehalaxe Gernikakoa gogoratzen zaigu euskaldunoi. Izan ere guretzat oroitzapen asko duena bait da.

Neri, ordea, Gernikakoak Ataungoa oroitarazi dit: Don Joxe Miel, alegia. Euskal frutu ugari eman eta ematen dituen Euskal arbola dirudi gizon honek. Eta ihartu baino lehen berriak sortu dituen arbola gainera.

Horregatik egiten dio Euskal Erri osoak omenaldi eta gorazarre. Ez da goitik behera ezarritakoa, behetik gora datorrena baizik. Hori da izan ere egiazko herri-omenaldiaren ezaugarririk nabarmenena.

Aurrekoan D. Joxe Mielen izaeraren bi alderdi aipatu genituen: Jauntxokeriarik eta maixukeriarik gabeko eta ika-mika eta mokokeriarik gabeko gizona zela esaten genuen orduan.

Gaur, jakintsu honen lanaren bi alderdi ukitu nahi genituzke.

D. Joxe Mielek Erriari bere burua ezagutzen lagundu dio. Euskaldun deitzen diogun Erri bat badela erakutsi digu. Beste Errietatik berezia den Erri bat badela, alegia: kulturaz, bizieraz, teknikaz, etxe-egituraz, lege-ohituraz, izkuntzaz, erlijioz, folklorez, sineskeriaz... berezia den Erria, noski.

Lurraren eta lehenaren zantzua darama gaurko euskaldunak. Ez dezake utz gizon izatea ukatu gabe. Ildo horri jarraitu behar dio landuz, osatuz eta gizonagotuz.

Euskal zantzua eta ildoa aurkitzen lagundu digu D. Joxe Mielek. Gizona ez dago utsean, dilin-dalan, zintzilik. Lurrean eta kondairan errotua eta itsatsia dago. Gizona ez diteke zain hoietatik eten gizona bera desegin eta zapuztu gabe. Euskal sustraitik bakarrik gizondu dezakegu euskal-gizona.

Baina D. Joxe Mielek zantzu eta ildoak sumatu ez ezik sumatzaile berriak sortu ere egin dizkigu.

Erriarenganaino iritxi dira gizon honen azterketa, liburu, idazlan, itzaldi eta esanak. Gai hauetaz arduratuko den jendea aurrera atera du. Gai hauetaz jantzitako jendea sortu du. Hor dago Arantzadi taldea. Hor daude Barandiaren beraren **Lehen Euskal Gizona** eta B. Otaegiren **Lehen Gizarteak** euskerazko bi liburuak. Sororik landuenetakoa dugu Euskal Errian kondaira-aurrea zalantzarik gabe. Ale hontan azalduko diren idazleen izenak ditugu adibiderik onena.

Baina ez dezagun uste bide hau urratzea erraza gertatu zaionik D. Joxe Mieli. Gaur baino zailagoa zen izkuntzak ikastea, erbesteko Unibertsidadeetara ateratzea, hortarako behar zen dirua eskuratzea. Gaur ez da erraza eta orduan mila aldiz zailago nekazari baten semea Ataundik Alemaniara joatea.

Ez zituen, ordea, garaiaren zailtasunak bakarrik menderatu behar izan. Baita gerratearen ekaitzak ere. Neke aundiak eskatu dizkio D. Joxe Mieli bere Erriarenganako maitasunak.

Ez da izan jakintsu honentzat bizitzako bidea lau-laua eta ordeka. Halere aurrera jo du. Mendian jaioa izan nonbait.

Omenaldi hau Erria gehiago ezagutzeko eta maitatzeko gerta dakigula. Nekeak neke eta lanak lan Erriaren zerbitzuan jarduteko gogoa piztu dizaigula.



Barandiarango Joxemiel

(c) Ministerio de Cultura 2005

GURE LEIHATILATIK

Amaika bertsolarik artu zuten parte «Uztapide»ren omenaldian

OMENALDIAK

Zubeltzu pelotari zenari egin zitzaion maiatzaren 30an, gauaz, omenaldi Galarretako pelotalekuan. Beste partidu batzuen artean banakako hauek jokatu ziren Aierbe —Erro eta Lekunberri—Raul.

Donostiako Ollagorra elkarteak berriz, Fernando Tapiari egin zion maiatzaren 29an. Txapelketan izan zuen arrakastagatik egin zioten omenaldi bihozti eta samurra elkarte ortako pelotazaleek. Urrezko ikur bat eman zioten esker onez.

Egin berria diote Uztapideri Eibartarrek. Baina berriro omenaldi egin nahi diote Oiartzuarrek, Ekainaren 9an eta 10ean. Lurdes Iriondo, Xabier Lete, Julian Lekuona, Pello eta Pantxoa, Oskarbi, Antxon Valverde, Korka Knör eta Benito Lertxundik abestuko dute 9an gaueko amarretan Uztapideren omenez. Urrengo egunean, igandez eta goizeko amaiketan bertsolari auek: Mugartegi, Arozemena, Xalbador, Mattin, Mitxelena, Lizaso, Agirre eta Lasartek. Aurkezle, Lexoti eta Lizaso eta gaijartzaile, Juan Mari Lekuona.

JOKOAK

Tolosako zezenplazan eta eguerdiko amabiterdietan jokatuko dute Dimako Jose Yurrebasok eta Adunako Iñaxio Gorostidik Ekainaren amazazpian. Amar arroako arri zilindroaz neurtuko dituzte beren indarrak, baina ez nolanahi, esku bakarka baizik.

Egun berean dute jokatzeko, aldatzen ez badute behintzat, Paskueltsoro eta Urtain laugarrenak ere. Amabi arroako kubikoa jaso behar du Paskueltsorok. Amairu arroa eta erdikoa Urtainek. Seina minutuko iruna txanda egingo dituzte.

Asto-demak jarri dituzte Aian ekainaren bian, iruan, bederatzian eta amarrean. Arrakasta aundia izan du deiak. Askok izena eman du. Nonbait asto asko dago bazterretan.

Endañeta eta Urtain laugarrena ikusteko egokiera izan genuen Aizarnan, Maiatzaren 31ean. Beren arriak eta abildadeak ikusi ahal izan zituen jendeak.

BOLARIAK

—68 bolarik artu dute parte Zubietako bolatokian. Ona zazpi aurrenekoen izenak errezkan: Joxe Ugalde, Hilario Lekuona, Ramon Izagirre, A. Goenaga, Joxe Iturbe, Felix Aizpurua eta zazpigarren Bengoetxea.

—Añorgan ari da jokatzen bolarien Gipuzkoako txapelketa. Irurogei bolarik artu dute parte. Banakakoetan, Elizegi, Etxebeste eta Uradanpilleta dira aurreneko laurak. Binakakoetan, berriz, aurreneko iru, Elurtxori, Ategorrieta eta Urnieta.

TOKA

Tokan ere jokatu zen Zubietan. Auek dira aurreneko laurak. Matxain, Lopetegi Jabier eta Pedro Erdozia. Ilaren 3an, igandez, jokatu zen bai tokan eta bai bolan.

FESTAK

Santakutzak igaroz gero festa giroan sartu gara arrunt. Legorreta, Beasain...

Aizarnako gazteak ere ez dira atzera begira egon. Berebiziko festak egin dituzte maiatzaren 31ean. Txirrindularien karrera izan da bailara guztia festa giroan jarri duena. Irteera eta sarrera, asiera eta bukaera bakarrik izan dute berton.

Lizaso eta Lazkano bertsolariek borobildu dute egoki goiz partea.

Bazen arratsalderako ere nahiko ikusfesta. Bertsolarien bigarren saioa. Endañeta eta Urtain laugarrenaren ekinaldia. Oskarbi eta Amets abestaldeen abesti saioa eta Axari soñujolearen dantza doiñuak izan ziren arratsaldeko solas-jaki.

Penagarria den bezala ez zuen eguraldiak lagundu. Goizeko beroak arratsalderako arria eta euria ekarri zituen. Nahiko bihurria izan du maiatz goxo onek bere azken eguna nekazari eta festazaleentzat.

UZTAPIDERI OMENALDIA

"Astelena" pelotalekuan ginen maiatzaren azkeneko igandez. Jendea ugari ikusi genuen "Arrate" elkarteko euskal-batzordeak antolatutako jaialdian. Entzuleen artean baserritarrak ziren gehienbat, baina kaletik ere gazte mordoa azaldu zen bertsolariei entzutera. Badirudi gazteok ere bertsolaritza aintzakotzat artzen asi garela.

Amaika bertsolarik artu zuten parte: Arozemena, Egileor, Narbaiza, Mattin, Xalbador, Gorrotxategi, Lasarte, Mitxelena, Agirre, Lazkano eta Mugartegik.

Lizaso Joxek aurrez adierazi zuen bere etorri ezina.

Itxura ederrez azaldu zitzaigun Uztapide Eibarren. Txalo asko jo zitzaion frontoira sartu zenean.

Esan zaigunez bertsolari guztiak duan edo debalde jardun ziren bertsotan lagunaren omenez. Saio ederra eskaini ziguten bertsolariak oro ar. Bakarka, binaka, irunaka, denetara probatu ziren.

Gaiak era eta mota guztietakoak J. San Martinek gertutu zituen: Itsua, gorra, mutua... Bizi osorako ezkontzaren alde eta aurkako eztabaida... Langilea eta langileen aldeko estudiante alferra... Ume askoren aldekoaren eta aurkakoaren arrazoiak...

Bertsolari bakoitzak bina bertso eskaini zizkion Uztapideri.

Euskaltzaindiaren erabaki baten berri eman zen saioaren erdian. "Manuel Olaizola "Uztapide" Euskara eta Euskal Herriaren alde egin duen lanagatik Euskaltzain-laguntzaile izendatzen du".

Agurra Bertako seme Juan Mari Narbaizak eskaini zion:

"Manuel txalo auek
Biotzean gorde (Bis)
Eta gaurkoa izan da
zure lanen orde.
Gu-re zure inguruan
pozturikan gaude.
Penaz bearko dugu
emendikan alde.
Biotz biotzetikan
agur Uztapide".

Aurkezle Joxe Mari Iriondo izan genuen.

Inork uste ez zuela eta jendea kalera abiatzera zijoalarik Uztapide bera urreratu zitzaigun mikrofonora. Bertsoren bat botako ote digu? Ez. Itz auek esan zizkigun: "Eskerrak eibartarroi eta gaiñentzekooi. Portatu zerat. Eskerrik asko danoi".

Txalo artean ito zen Uztapideren itz-otsa.

Goi mailako bertsolariak merezi duen bezalako jaialdi bikain eta entzungarria izan zen Eibarko omenaldia.

LAN-OPORRAK

Langile jendea estu dabil. Bizitza garestitzen eta lan-sariak nahiko urri. Ezinak kalera atera arazi ditu. Lan-oporrean daude lantegi askotako langileak. Langileriaren garratxiak izan dezala oihartzun gure belarrietan.

Mutiozabal

FAGOR
edaria epela dagola? FAGOR'ek oztuko du bereala



MILLOI BAT ETA 100 ESKUKO TELEBISTA ZOZKATZEN DITUGU

Milloi pezetako ta 100 eskuko telebistako zozketa ontan Noiznaiko, Aldi-jakiñeko, Bizitzako ta Erbesteratuen kartillak sartuko dira.

Maiatza'ren 16'tik Uztaila'ren 7 arte jartzen diran milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat emango da, ta beste zenbaki bat jarrita dauden 5.000 pezeta bakoitzeko, milla pezeta sartuezkero.

Aldi-jakiñeko kartilla bakoitzaren zenbakiak artzeko, beste milla pezeta sartu bear dira Noiznaiko kartillan. Zozketa, Aurrezki Kutxa Probintzialaren lantokian, J. M. Salaverría kalean, datorren Uztaila'ren 13'an egingo da.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA
CAP

(c) Ministerio de Cultura 2005

Jose Migel Barandiaran eta Euskal Etnografia

Hasi, 1916. urtean hasi zen lanean; hain zuzen Ataungo Jentil-baratzako gazteluari buruzko lan batekin. Orduz geroztik ez zaigu ixtant batez ere pausatu euskal etnologian erraldoi baten antzeko den on Jose Miguel Barandiaran.

Argitaratu dituen idaz-lanak 300 baino gehiago dira: liburuak, hitzaldiak, lan-agiriak, lur-ikertzeen txostenak, eta abar; horietatik 120 baino gehiago euskal Etnologiari dagozkionak.

Haste hastetik talde bat osatu zuen beste bi aztertzaille jakintsu gorenekin: Telesforo Aranzadi eta Enrike Eguren. Urte parrasta batez alkarrekin aritu ziren lanean, eta talde honen emaitza, besteak beste, gure herriko trego-harrien ezagutzea, aztertzea eta sailkatzea da. Lan agiriak Diputazio bakoitzak argitaratzen zituen bere eskualdekoak.

Argitaratze honetan, aipatutakoaz landa, beraurrek bildutako ipui, elezahar, ohitura, siniste-zahar eta halako etnologiako berri ezin interesgarri eta baliosagoak ematen dizkigu on Jose Migelek.

1921. urtean Euskal-Ikaskuntza elkartearen baitan Eusko-Folklore sailla du sortzen eta gidatzen. Bildutako lanak «Anuario de Eusko-Folklore» aldizkari famatuan ematen dira argitara. Amalau urteren buruan eten egiten da aldizkaria, gerla zela-eta zuzendaria eta laguntzailleak herbesteratu beharrak izan baitziren.

Hala ere lanari lotua segitu zuen, eta Lapurdiko Saratik beste bi aldizkari berri gidatzen ditu: «Ikuska» eta «Eusko Jakintza», batez ere prehistoria, lingustika eta etnografiari buruzko lanak ezagutarazten zituztenak.

Guipuzkoara itzultzen denean, Arantzadi elkartea da haren zuzendarigoaren babesari Anuario delakoa ber-argitaratzen hasten dena.

Beste alorretara joaz, ezin aipatu dira eman dituen hitzaldi eta ikastaro guztiak, bainan garrantzitsuenetarikoa denez gero Nafarroako Unibersitatean duela zenbait urte ematen ari den ikastaroa nabarmendu nahi dut, hor hazi eta hezi baitira Euskal Herriko Atlas etnografikoa taxutzen ari diren ikertzailleak.

Atlas osatzeko lan honi «ETNIKER» deritza, eta aurreratu xamarra doa Nafarroari buruz. Gipuzkoan honez gero hasiak gara zenbait herritan, eta Araba eta Bizkaian laister hasiko direlakoan gaude.

On Jose Migelen idaz —lanen artean nagusienetarik-beti ere euskal etnologiari gagozkiola— Eusko-Folklore orriak dira, herri jakintzaren benetako arrobi jori eta aberatsa; bai eta «Diccionario de Mitología Vasca» delakoa ere, euskal etnografiaz edozein lan egiteko derriorrezkoa.

Bestalde aipagarria da gaurko artzantzaren joka moldeaz aspaldi oharterazi zuena, gaur eguneko artegi eta saroiak, alegia, megalitiko kultura eremu beretan kokaturik egotea. Honek badu bere garrantzia, Neolitiko haroko gizonaren kultura ikasi ahal izateko, hazkuntza eta artzaingoaren astapenak aztertzeko, bai eta artzainen joan, etorrien ibil-bideak eta artzaingoarekiko arazoak xuritzeko ere. Gaurko artzainak, antziñako kulturaren jarraikitzaille eta aztarren bakarrak baitira.

Bainan goazen aurrerago. On Jose Migel ez da bakarkako lanetan aritu txoilik, beti jakin izan du taldeka jarduten, eta gehiago oraindik, ikasle ugari sorterazi du urteren urtetan, gure herriko etnografia ikasketak aurrera joan daitezen segurtatuz. Hori da haren dohairik haundienetakoa: lan gaitza eginik hazia ere erein duela; hazi emankorra gero!

Haren idaz-lanak arrobi bat dira, bai eta ikaspide zuzena ere iker eta azter-lanak nola egin behar diren jakiteko.

Haren emaitza, beraz, ez da berak egin duen lanean bukatzen; itur-buru sortzaille horietakoa dugu. Horrengatik denagatik, eta aipatzeke gelditako ziren beste amaika gauzarengatik, nik eta Euskal Herri osoak Eskerrik bihozkorrena baizik ez dizaiokegu opa, bai eta luzaro seg iahal izan dezala lanean ere.

Fermin de LEIZAOLA

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:
MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUIÑEA
D L.: NA. 80-1963

Joxe Miel Barandiaran eta Euskal Herriko Prehistoria

Orain dela gutxi eta behin baino gehiagotan Euskal Herriko gizon ospetsu batek esan du, Barandiaran Joxe Miel, bere azterketa-lanetan, gizon bakarti bat izan dela, ez duela jakin gerorako sail bat osatzen eta hau gauza txarra dela. Lehenen lan hoiek etenda geldituko direlako. Eta bigarren, azterlari batek bakarrik lan egiteak eragozpenik haundienak ekartzen dituelako bere azterketaren esanahia epaitzeko.

Asko istimatzen dut, eta arrazoi askogatik, D. Joxe Mielez iritzi hau eman duen gizona. Baina zeharo bestelakoa da nere iritzia. Nik lerro hauetan D. Joxe Mielen Prehistoriako azterketak aipatzean (beste batzuek Etnografiaz jardungo dute), garbi agertuko dut hasieran aipatu dutan jaun horren iritzia ez dela egia.

D. Joxe Miel, euskal-prehistoria alorrean, 1916an hasi zitzaigun lanean. Urte horren aurretik ozta-ozta eman ziren lehengo pausoak gai honetan, eta ez oso zuzen beti. Aipa ditzagun batzuk:

1 Errenteriako Aitzbitarte aztarnategiaren agerketa eta azterketa (hobeto esan, haitzurketa eta lapurketa). Jian zen gizaldiaren azken aldera eta oraingoaren hasieran harzuloaren zatirik nagusieneko lurrak kendu ziren. Orduan aurkitutako gauzetatik ezer gutxi gelditzen zaigu.

2. Isturizko harzuloaren agerketa eta lehengo lanak.

3. 1913tik aurrera hasi zen D. Telesforo Arantzadi Nafarroako Aralarren trikuharriak aztertzen.

D. Joxe Miel lan hauetan azaltzen zaigun urte berean (1916), Gipuzkoako Aralarren lehenego trikuharriak aurkitu ondoren, T. Arantzadiri batzen zaio, E. Egurenekin batera. Horrelaxe sortu zen Arantzadi-Barandiaran-Eguren hirukoeta, eta hau izan da, inongo zalantzarik gabe, euskal-prehistoria gaietan, garrantzirik haundieneko gertakizuna. Horrela eraiki zen euskal-prehistoria azterketaren ardatza. Hogei urte luzetan, guda arte, Irukote honi esker, agerketa eta azterketa mordo ederrak egingo dira. Eta hauei esker jakingo dugu Goi-paleolitos haroan uste ez bezalako bizitze indartsua zegoela Euskal Herrian.

Gai hauetatik ezagutzen ditugu Santimamiñe, Lumentxa, Urtiaga eta Ermittia harzuloak. Baita Aralar, Altzania, Ataun-Burunda eta Elosua-Soraluzeko trikuharriak ere, beste askoren artean. Ikastearren, atzerrira egindako ibilaldirik nagusienak ere, D. Joxe Mielek T. Arantzadirekin egin zituen, elkarrekin lan eginaz. Horrela 1922an St. Germain en Laye, Kolonia, Munich, Leipzik, eta Berlingo museoetan ikasiaz. Eta berdin 1929an Ginebra, Luzerna, Zurich, Insbruck eta Vienakoetan.

Lan hauek hasi eta hogei urtera, gure Herrian hainbeste gauza, baita azterketa hauek ere, eten zituen guza zortu zen. D. Joxe Miel 17 urtetan Hegoaldeko Euskal Herria utzi beharrean gertatu zen. Lapurdi aukeratu zuen bizitokitzat, eta bere lanari Ipar aldeko Euskal Herrian jarraitu zion. Aldi hartan, ordea, Etnografiari gehiago heldu zion, Prehistoriari baino. Halaz ere, bere babesean hasi zituzten Laplace eta Boucher-ek Prehistoria azterketak.

Bitartean, Hego Euskal Herrian "Sociedad de Estudios Vascos" zeritzan elkarteak guda aurrean egindako lan bikainaren pusketa sakabanatuak biltzeko ahaleginak egiten hasi ziren. Eragozpen askorekin, eta Elkarte harek zaintzen zituen zatietako bati bakarrik begiratuaz, 1947an Arantzadi Elkartea sortzen da. Ezin ahazturik utz une honetan J. Elosegi, Elkarte honen eraikitzaile nagusienetakoa, eta 26 urte luzetan bere kemen eta adore izan dena. Hasiera hartan Elkatre honek ez zuen espezialistarik Prehistori-ikaskizun sailean. Baina hortarako giroa sortu zuen, eta giro horren epelera bildu zen Prehistori-zale mordoska bat, etor zitekeen maixuren batekin lanean hasteko.

1953an bihurtu zen D. Joxe Miel Atauna. Baina ez zen azterketa bakartian izkutatu. Arantzadi Elkarteko lanetan sartu zen osoro. Elkarte honen lantegietan, gazte talde batekin egingo du lan, guda baino lehentxeago Ermittia eta Urtiagako harzuloetan aurkitu eta bildu ziren lanabesak eratzeko eta salbatzeko. 1954ean Arantzadik Urtiagako harpean antolatutako azterketak hasten ditu, eta honela piskanaka, beste gazte sail bat osatuko du. Hauetako batzuk, garai hartan, Unibertsidadean ikasten ari ziren, eta D. Joxe Miel ezagutzean, eta beronek zuzendurik, Euskal Prehistoriako gai batzutara jo zuten beren espezializazioa aukeratzean. Era honetan gerora, baokitzak aztertu ahal izango zuen gai zehatz eta mugatuagoa, antzinan baino sakonago eginaz gainera. Lagun berri hauek, gure maixu haundiari, urtetan eta lan ugairetan lagunduko diote, eta beroni esker, ikasi ahal izango dute, Unibertsidadeko aulkietan ikasi ahal izango ez zutena. Haundia izan da sailean elkarturik egin den lana. Lan honi eskerrak, dagoeneko atera dira hiru doktor-tesis, eta ez nolanahikoak. Zaragoza eta Madrideko Unibertsidadeetan behintzat, kalifikaziorik goren gorenekoak eman dizkiete. "Zuzendari" teorikoak, Unibertsidade hoietako maixuak izan dira, baina egitazko zuzendari, D. Joxe Miel izan da.

Labun berri hauek, hortarako gauza izan direnean, beren kontura hasi dira lanean. Ez baita D. Joxe Miel, berak bakarrik dakiela uste duen, edo jauntxokeriaz jarduten duen, edo bere ikasle izan direnak gora doazela ikusteak min ematen dion hoietakoa, oso beste aldera baizik. Garbi asko azaldu du, diodana, azkeneko hogei urte hauetan. Ikusten dugunez, guda aurreko 20 urtetan, hortan ikasiak ziren gizonekin elkartu zen. Azkeneko 20 urte hauetan berriz, bere ikasleekin egitazko ekipo bat tajutu du. Orain. hauetako batzuk beren aldetik Prehistoria espezialidade berrietarako lagun berriak biltzen ari dira. Esan diteke, beraz, Euskal Herrian azterketa hauen etorkizuna argi dagoela. Eta dena, ez D. Joxe Mielen lan bakartiari, baizik eta elkarrekiko lanari eskerrak.

Jakina, bakarrik ere, gauza bat baino gehiago egin du. Hoietako bat, 1953an Atauna etorri berri hartan. Behin batean bere ilobekin erromes Arantzazura zihoala, Urbiatik igarotzean, ilobak atseden hartzeko geratu ziren, baina ez D. Joxe Miel. Hau Artzanburuko trikuharrira igo zen, eta berak 1918an utzi bezalaxe aurkitu zuen. Nola ez gogoratu bere lagun eta adiskide Arantzadi eta Eguren? Hantxe bada, bakarrik, otoitz egin zuen bere adiskide min izan zituenen alde. Baina hau egiterakoan ere, bakardadea galdu eta lagun zaharren elkartean sartu zen.

JEXUX ALTUNA





(c) Ministerio de Cultura 2005

MANUEL "UZTAPIDE"

Guztiok dakigunez, maiatzaren 27an., omenaldi bat egin zitzaion Eibarren "Uztapide"ri. Jenderik benetan asko zen egun hartan Astelena pelotalekuan, "Uztapide"ren inguruan bildu ziren bertsolari guztiz ezagunei entzun asmoz. Han ziren Xalbador eta Mattin, Lasarte, Lazkano, Agirre, Gorrotxategi, Arozamena, Mugartegi, Egileor eta Narbaiza bertsolariak. Lizasoak ez zuen etor ahal izan, bezperan egundainoko ekaitza izan bait zen Azpeitian, eta argiduna denez gero gau eta egun hardun behar izan zuen lanean. Ekaitza kanpoan eta, etorri azinik, Lizasoren beraren baitan ere ez zen, nonbait, trunboi txikia. Ez du berak, ba, jenio makala!

Bertsotan baten batek aipatu zuenez, han egon beharra zuen beste bertsolariren bat edo beste ere falta zen. Baina



B rtsolaririk gazteena. Narbaiza eibartarra

ez gara hemen alferrikako aipamenetan hasiko. Nork berea ikus beza eta hor konpon Marianton! egiazko erantzukizunak bere hala beharrezko baldintzak baditu ere.

Gue ere ez ginen Eibarren igande hartan, antolatzaileetarikoak izan arren. Donostian ZERUKO ARGIAKoek ere bilera genuen eta biak utzi behar izan genituen, Arrasaten gure iloba baten lehen Jaunartzea ospatu bait genuen.

Gustatu ere oso gustatuko zitzaigun bertso saio hartaz kronika egitea, baina agian beste hurren batetan beharko du izan.

Gure zorionik sutsuenak "Uztapide" zaharrari. Eta ez eibartarrok eskaini diogun omenaldi kaskar honegatik soilik, bai eta Euskaltzaindiaren azken biltzarrean euskaltzain-laguntzaile izendatu berri dutelako ere. Gure txaloak ba, Manuel Olaizola "Uztapide"ri.

'ZABAL" ALDIZKARIA

Agindu bezala, jaso du gu Zabal aldizkariaren lehen alea, dagoeneko Beñat Oyharzabal jaunaren zuzendaritzapean Baionan multikopiaz argitara emana. Aipa dezagun hemen "Aintzin-Solas" delakoan azaltzen den zenbait lerrokada, guk esan genezakeen baino askoz ere esankorrago eta agergarriago izanen bait da:

Zazeta bat gehiago gure artean. ZABAL du izena. Izana ere hala nahi luke: zabal mugaren gainetiko bere begiradan eta, bide batez, zabal bere herri mezuan.

ZABAL Ipar eskualdean sortzen da eta ez Hego Herrian, ba da horretako arrazoinik aski. Besteak beste, Hegoaldeko produkziogintzaren ugaritasunak eskualde honetako ahuleziaren aintzinean paratzen gaitu. Iza nere, lumarik pizkorrenak denbora luzetxoan hego aldera begira egon dira. Eta hango plangintza kulturalak hemendik zerbitzatzen ari izanak ez bi-

de dio mesede handirik egin eskualde honetako kulturagintzaren azkartzeari.

Gauza bistakoa da, bestalde, gazteri bat dela ari iratzar- [illegible] Aski [illegible] de ikasle giroan hauen kultur iraultza batetarako lehia. Seguraski ba luke multzo honek zer esanik, ez agian nun esanik.

Kazeta honek beraz, egoera berezi hontaz jabetzen delarik, Ipar Euskal Herriko indar bizietan finkatu nahi lituzke bereziki bere kultur ahaltasunak. Iparraldeko euskal kulturagileen indar sakabanatuak elkartu beharra gartsuki sentitzen du...

ZABALek — kazetari dagokion egitura aldetik, ba du Euskal Herria kulturalki hazurtzeko bere bide bat. Hona hemen zein den: Lehenik Euskal Herria bera du gogoan. Hemen, eta Euskal Herria bere osotasunean harturik, egungo problemarik larrienak emanen dira...

Ondoren, mundu zabalean xoko bat betetzen dugula jabeturik, nonahiko herrialdetara hedatuko da gure jakin mina. Hemen gaurkotasuna luketen gaiak erabiliko dira: ideien gora behereak, gertakizunak, albisteak eta beste.

Eta, azkenik, euskal kulturagintzako alorra landuko da. Euskeraz bakarrik egindako alorra noski. Kritika aldetik joanen da batipat gure ikerketa...

Hauxen da ZABAL bere sorreran... Inork nahi balu xehetasun gehiago edota eskatzekotan, honako zuzenbide honetara: 31, rue Bourgneuf Baiona. Harpidetza, 22 libera iparraldean eta 30 hegoaldean. Bi hilabetarik behin aterako da, eta ale bakoitza 4 libera.

NOLAKO IKASTOLA

Maiatzaren 15eko. ANAITASUNA aldizkarian ezin argiago mintzatu zaigu Eusebio Osa, berak nahi duen eta nahi ez duen Ikastolaz. Ez dakit harako puntuak irakurri dituzten irakurle guztiak bat datozen edo ez Eusebiorekin. Baina ez dio behintzat inork ukatuko oraingoan argi azaldu zaigula, batere hizki-mizki eta izkutu-biderik gabe. Horra hor, bestela, inork nahi balu irakurri, haren artikulua goraxeago aipatu alean.

Ez gara, ba, haren lana hitzez hitz hemen kopiatzen hasiko luzeegi gertatuko lizatekeelako batetatik, eta gure zeregina ez delako ere, bestetatik. Hala ere, Eusebiok berak nigan ezagutzen duen jakintza apalean, herri zentsura kozkor batez, zertxobait erantsi nahi nioke.

Nahi ez dudan ikastola aipatzean, honela dio lehen puntuan: "a) Zenbait ikastolatan, Junta Zuzendaria, pedagogi arloan ezer ez dakien jendez osaturik dago. Hau da, pedagogian analfabeto den jendeak zuzentzen du ikastola. Lantegi batean agintari eta zuzendari denak, uste du ikastolan ere egin eta zuzen dezakeela".

Nahi ez dudan ikastola aipatzean, berriz, beste hainbeste edo antzerako: "Junta Zuzendaria, heziketaz, pedagogiaz eta abarrez zerbait irakurri duen edo guttienez horretaz zerbait baino gehiago arduratzen den jendeaz eraturik dagoen ikastola".

Ni neu, hasieran, bat nago Eusebiorekin. Haatik, ez dezagun Ikastola batetako Zuzendaritza tekniko eta espezialistez osatu. Zeren, horrela pentsatuz, lantegi batetako zuzendaritzan ez luk einoiz langileriak ordezkorik izanen, ez bait (omen) dira langileak lantegi arazotan guti baino adituak; eta herri mailan berriz, agintaritzak diktadura mota behar luke, Herria ez bait (omen) dago sekula santan horrelako erantzukizunetarako gerturik.

Beraz, pedagogilariak bai, ikastola batetako zuzendaritzan barrena, baina bai eta guraso soilak ere. Edota, hobeto esan, gurasoak guraso diren aldetik, eta ez pedagogiaz jakin dezaketenagatik.

BERRIAK

Ekainaren 10ean. Arraten ospatuko da XI Aldazabal Haur Idazlehiaketa. Ohi denez, idazlehiaketa honetan hamalau urte arteko edozein haurrek parte har ahal izanen du. Julene Azpeitia, Jose Antonio Retolaza, Margarita Murgizu, Aita Karmelo, Imanol Laspiur, Libe Sarasua eta Luis Alberto Aranberri izanen dira mahaiburu eta zuzentzaileak.

Jakin ahal izan dugunez, Deba bailadakorik ezezik, Bilbao, Donostia, Gasteiz eta beste zenbait herritatik etortzeko da une pila bat. Izanen da ba aurten ere girorik Arrate inguruan.

Idazlehiaketa honetan parte hartu izanak eta gero berri emaile bezala ari zaizkigunen artean ditugu Odile Kruzeta eibartarra eta Ataungo "Trikuarrieta" joria. Segurutik ez dira azkenak izanen. Betor gazteria berria!

● Programa joria ere ekainaren 12tik. 21era. arteko hamar egunen buruan eta J. M. Barandiaranen omenez ataundarrek prestatu dutena. Lehen asteari dagokionez, lau hitzaldi, bertsolari saio bat eta haurren jaia izanen da.

Ekainaren 12an. Andu Lertxundik Euskal Literatura gaur delakoa gaia aztertuko du. Biharamunean, Leizaola jauna Dunbaren Sorrera delakoaz mintzatuko da. Ekainaren 14ean., berriz, M. Etxeberriak Euskal Ipuiak azalduko ditu. Eta ostiralean, azkenik, E. Goienetxe Euskal Herria Frantziako Iraultzan gaiaz mintzatuko da. Lau hitzaldi hauk San Gregorio hauzolo elizan izanen dira, arratsaldeko 8,30etan.

San Martin hauzoan, aldiz, eta larunbat iluntziko 9,30etan., bertso saioa, Xalbador,Lopategi, Lazkao-Txiki, Enbeita, Basarri, Lasarte, Igarzabal eta Arozamena bertsolariekin.

Ekainaren 17an., azkenik, Haurren Eguna ospatuko da San Gregorio hauzoan. Goizean goiz, txistulari kalejira, trikitixa, herri meza eta haurren ekinaldiak. Arratsaldean, berriz, jaialdi aproposa haurrentzat, kantariak, dantzariak, giñola eta beste. Jaialdi honetan, oroigarri bat eskainiko zaio J. M. Barandiarani, Euskal Herriko haur guztien izenean.

● Ekainaren 17an. harrijasotzaile saio eta agerketa bat eratzeko da Eibarko Zezen Plazan. Bertan izanen dira "Endañeta", "Aretxa" eta "Yurrebaso" guztiz ezagunak. Harrojasotzaile saio hau eguerdiko 12 1/2etan. izanen da eta Mogel Ikastolaren alde.

BESTE ZENBAIT

Juan Arbelaiz jauna hil zitzaigun maiatzaren 30ean. Bagenekien aspalditxodanik gaixorik samar ari zela, hala ere ez genuen horrelakorik espero.

Duela bostpasei urte ezagutu genuen Arbelaiz jauna, euskal liburuak aztertu eta lortu nahiz Manterola kaleko (Donostia) liburutegian barrena abiatu ginenean. Geroztik, egiazko adiskideak bilakatu ginen, berak "Amatiño" nintzenik ez jakin arren, ez eta nik ez zekienik ere. Huraxe hura bion sorpresa, Durangoko azken azokan berak moldatzen zihardu euskal liburuen katalogoaren berri ZENBAT GARA sailerako eskatu nionean.

Goian bego, Juan Arbelaiz adiskidea. Gure doluminak, berriz, haren senide guztiei, Manterola Liburutegian hain ondo hartzen gaituzten alabei batipat.

● Maiatzaren 25ean. Euskaltzaindiak izan zuen biltzarrean, Gaizka Barandiaran eta Xabier Gereo jaunak proposatuak izan ziren Goizaldi dantza taldeak eratu duen literatur sariketarako mahaiburutzat.

KANTA SAIOA MADRIDEN

Madrid-en euskal ikasle asko dago, eta lan dexente egiten dutela ere badakigu, elkar euskalduntzaren eta euskal girorik gal ez dakien ahaleginduz batipat.

Hoitako batek Madriden bertan eratu den Iñaki Zabaletaren kanta saio baten berri ematen digu. Hona hemen ahren gutuna, Madrideko euskal giroaren adiarazgarri ezezik, bai eta Iñaki Zabaleta kantariaren kritika gisa ere:

Joan dan igandean, "Colegio Mayor Cisneros" izeneko ikasle-etxean, Iñaki Zabaleta izan genuen. Madriden geran euskotar multzo bati bere abestien azalmena egin zion.

Igaz, Bergarako seme eta gaur Oiartzunen bizi dan Iñaki Zabaletak, Euskal Abeslari Berrien txapelketa irabazi zuan. Aurten, emen soldauzka egiten dualarik. bere abeskera erakus zigun, Erritik kanpo geranoi.

Ogeiren bat abesti bota zuan Iñakik. Geienak, leendik ezagunak —X. Lete, A. Valverde, M. Laboa eta Labegerie abeslariei entzunak ditugunak— eta beste batzuek. "Lartaun" abes-batzekoa izana degu Iñaki. Abots ona, abesten dakiena eta gusto fiñekoa iruditu zaigu. Saioak falta ditu, oraindik.

Bere, eta bera bezelako abeslari berrien izenean, zera aitatu bear: saioak izaten diranean, berriei, asten ari direnei, ez omen zaie egokiera eta leku eta denbora geiegi ematen. Emen Madriden, egokiera eman baldin bazaio, ez ote zaio ukatuko etxean, kanpoan eskeiñitakoa...

IRITZIAK IRITZI

Bilbaoko AGUR aldizkariaren 87.garren zenbakian (maiatzaren 12koa.), "Errietako barriak" sailean eta Iruñeko "Barañaindarra" albistaria Iruñeko Aurrezki Kutxaren sariaz mintzo da —berak Nafarroako Aurrezki Kutxa aipatzen du, baina ez da horrela, Iruñeko Caha de Ahorros Municipal denez—. Sariketa honi buruz honako hau zioen: "Premio Vascuence", euskeraz noski, Diaz de Ulzurrun eta Aingeru Irigarai (aita) ziren epai-maieko. Saria J. M. Satrustegi, Urdiain-go apaizari eman zaio. Eta "accesit" bat eman diote Joseba Aingeru Irigarai-ri (semea). Ederki!

"Barañaindarra" jaunak ez badaki ere, Euskaltzaindiak iazko uztaileko bazarrean izendatu zituenez, P. Díaz de Ulzurrun, M. Izeta, J. San Martin eta J. Haritsxelhar jaunek osatzen zuten sariketa horretako epai-mahaia. Egia esan, Aingeru Irigarai jauna ere beste lau hoiekin batean iznedatua izan zen, baina Aingeruk bere izena kenarazi zuen. Beraz, Aingeru Irigaraik ez du parterik hartu epai-mahai horretan.

● Garrantzi gutiago badu ere, beste itsusikeria bat ere agertzen du "Barañaindarra" delakoak, ez dakigu zer asmo indarrez. Dioenez, J. M. Satrustegi eta A. Irigaray (Apat-Etxebarne) jaunek, erdaraz euskal gaiez igandero idazten omen dute EL DIARIO DE NAVARRA egunkarian. Hau egia izanik, ahaztu egin zaio esatea, nonbait, hamabostean behin jaun bi hoiek euskara hutsean idazten dutela egunkari berberean.

Bestalde, euskara hain guti egiten den Iruñeko egunkari batez, gure hizkuntza eta kulturaren alde egiten ari diren zabalkundea horren erraz gutiesteko ahal da? "Barañaindarra"ren izengoitiak "Apat-Etxebarne"ren hotsa eta itzala duenean, behar bada guk ere errespetu gehiago izanen diogu.

II DANTZARI TXIKI EGUNA

Maiatzaren 27an. II Dantzari Txiki Eguna ospatu zen Oñatin. Gipuzkoako Eskolarteko II Euskal Dantza Lehiaketa eratuz ere. Bertan bildu ziren hamasei dantza talde, Donostia, Añorga, Ordizia eta Azpeitian aurrez eratu ziren saioetan hautatuak: Errenteriako bi, Donostiako bost, Eibarko bost, Eibarko bat, hiru debatar, Lasarteko hiru eta bi zizurkildar.

Epai-mahaia Gaizka Barandiaran, A. Gorostiaga, G. Yurre, Iñaki Mugerza, Mikel Nabaskues, J. M. Oronoz eta J. I. Montes jaunek osatzen zuten. Azken saioak igande arratsaldez eratu ziren, eta honako talde hauk izan ziren aukeratuak:

Hamar urte arteko mutikoen artean, Lasarteko "Lander" Taldea. Adin bereko neskatilen artean ere, "Lander" taldea bera.

Hamalau urte arteko taldeen artean, berriz. beste horrenbeste edo antzerako, bai mutiko eta bai neskatilen sailean Errenteriako "Orereta" taldeak izan bait ziren hautatuak:

Zorionak, ba, ezin bestean, "Lander" eta "Orereta" taldeetako zuzendariei, binaka hautatze hori erabat adiarazgarri bait da.

EUSKALTZAIN BERRIAK

Maiatzaren 25ean., ostiral goizean, euskaltzain osokoek izan zuten bileran, bederatzi euskaltzain berri izan ziren hautatu eta izendatuak. Batzuk, beren meritu jakinegatik, eta beste batzuk aspaldidanik irabazia duten ahore mailagatik.

Ohorezko hiru euskaltzain izan ziren izendatuak, Karl Bouda, Norbert Tauer eta Antonio Tovar, alegia. Eta sei laguntzaile: Gregorio Eppherre zuberotarra, Mikel Zarate irakasle bizkaitarra, Jon Bilbao Reno-ko (USA) irakaslea, Jose Migel Zumalabe hiztegilari donostiarra, Martin Ugalde andoaindar kazetaria eta Manuel Olaizola "Uztapide" bertsolaria.

Zorionak, hiotzez, guztioi.

AMATIÑO



(c) Ministerio de Cultura 2005

UTOPIETAN



Filosofo bati arestian honoko hauxe irakurri diot: Platon-en jarraitzailleek utopiak idatzi dituzte; Aristoteles-en jarraitzailleek, aldiz, politikaz edo herrigintzaz diharduten liburuak. Platonikoak, beraz, beti iraultzailleak izan dira; Aristotelikoak, aldiz, erreformazaleak.

Teoria honek zer pentsaturik ezarri du nere gogoan. Gure artean ze jokabide dabil nagusi bi jokabide horien artean?

Aurrera jarraitu baino lehen bi argitasun eman beharrean nago. Lehengo argitasuna, guziz pertsonala da. Platon-en filosofia, oro har, mila bider gehiago maite dut Aristoteles-en filosofia, oro har, baino. Haiere ez naiz jarrera absolutoan jartzen: ez Platon osoa eta soila bakarrik onartu; ez Aristoteles-en pentsaera osoa beti eta guzira arbuiatu. Artikulu honetan hori garbiro agertuko da. Bigarren oharra zera da: ze jokabide dabil nagusi gure artean, galdetzean, galdera zehatz mugatua egiten dut, alegia, gure herrigintzako jokabidean ikusten ditugun pentsakeretan, zeinera gehiago urbiltzen garan aztertu nahi nuke.

Nere tesisa, behin behingoz bederen, hauxe izango litzake: Gure herrigintzan —aintzakotzat hartzea merezi duten, bizpairu, jokabide kontuan hartuz—, platonismoaren eragina arras sakonagoa da, aristotelismoarena baino.

Izan ere, ze idea dabiltza, gidari-gisa, gure artean? Errealitatea aztertuz gero, gure adimenak atera dituan ideia eta gogoetak, ala errealitatea urruti utzirik geure adimenean eta geure adimenetik soil-soilik datozen ideia eta gogoetak?

Gorago esan dugu, platonismoaren seinaleetariko bat iraultzazaletasuna dela. Zein ez da gure artean iraultzaile azaltzen? Ez dakit inor ezagutzen dudan erreformista dela ofizialki eta formalki dionik. Izan, zer garan pertsonalki, hori besterik da.

Beste sahiets batetik arazoa hartuz, esan dugu, edo filosofoak esan digu, utopiazaleak direla platonikoak; errealistak, aldiz, estagiritaren jarraitzalleak.

Uste dut zilegi zaidala bat batera baiespen hau egitea: gu utopietan gabiltza, gu utopiaren altzoan bizi gara, utopia eder horregatik lan eta ahalegin oro egiteko prest gaude. Adi. Ez uste izan, gero, "utopia"-ri esanahi mezpreziagarrik itsasten diodanik. Oso oker zaude horrelakorik pentsa badezazu. Utopia hori ez bagendu ez dakit gure bizitza nolakoa izango litzakeen. Utopia hori izan daitekeen gauzarik ederrena, zuzenena, aurrelariena bait dugu. Izan ere, gure herrigintzak bere baitan daraman imajina horri alderatuko zaion herri aurreraturik eta sozialistarik ez bait da oraino munduan sortu.

Utopia hau, besterik ez da: eredua. Eredua, ordea, gutienez bi motarikoa izan daiteke, ideak bezalaxe. Bat geure buruan, kaskoan, eta adimen soilean sortu eta osatu den eredua. Bestea ere, nahi-ta-ez, adimenak eta arrazoimenak sortu behar duen eredua da, baina hau, behetik datorrena da, errealitateak eta gizonaren pentsakerak elkarren artean darabilten harremanetatik sortzen den eginasmoa, xedea eta programada.

Hauek horrela direlarik, gure "herrigintza" bultzatzen eta gidatzen duten ideia, gogoeta eta ereduak, utopiara arras gehiago etzanak daudela esaten dut, errealitate hertsi, gogor eta ilunera baino.

Nondik dugun gure utopiarako isuria? Utopiak ere badute bere sortzeko giro egokia. Platon-en utopia, behintzat, badakigu Atenas-en beheraldian sortu zela. Nik uste, gure egoera larria, gure tipitasuna, gure ezina, pentsa daitezkeen baldintza egokienak direla, hortik, larritasunetik, tipitasunetik eta ezintasunetik ihes egin eta iheslekuak, babesak, dotrinak eta elizak errealitatetik at eta landara bila eta eraikitzeko.

Aipatzen ez naiz hasiko, baina hein handi batetan gure "euskerazaletasuna", gure "aurrerazaletasuna", gure antiburgesia", gure demokratasuna, gure "herri-miseria", gure "neo-karlismoa", gure "iraultza", ihesleku eta babes baino ez dira. Umetan zera nahi izaten genduen: guk geuk eginiko txabolatxo tiki, hestu eta primitiboetan, hantxe kuzkurturik lagunartean amets egitea. Berriz ere Platon-en irudia burura; koban ez ote gaude gero oraindik? Beldur, hil-beldur ez ote dugu gero kanpora ateratzeko? Errealitatera jalkitzeko? Detxeparek, gaurregun, agian ez zuen lehengo hura esango, hau baizik: "Euskal-Herri, euskal gizarte, euskal langile, euskal industrilari, jalgi zaitezte plazara, herrigintzarako plaza erdira!

G. ANSOLA

BAR - RESTAURANTE
AURRERA
HAUXE DUZU ZURE JATETXEA
Urbieta, 12 Urrut.: 411528 - 412578
— DONOSTIAN —



TRANSPORTES azkar
ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Carretera Gral. a Hernani - B.° Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381
Aptdo. 1381

MUEBLES
URRETAVIZCAYA
1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIAK eta AURRE - KONTUAK
POSTAS. 46 GAZTEIZ (Vitoria)

ERAMAN - EKARRI'rako
AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO
Urrutizkiñak: 421369 - 427726
Iparraguirre, 8 - DONOSTIA

LOTARAKO-GELAK
hilean 750 pezetarekin
AMUEBLADORA
COMERCIAL HISPANIA
lorik egin gabe dago...
...zuk lo egin dezazun.
Moraza, 3 eta 14-San Marzial, 12
DONOSTIA IRUN
askoz merkeago eskura ordainduz
GARRAIOA DEBALDE PROBINTZI BARRUAN

YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA

(c) Ministerio de Cultura 2005

Hierarkiaren gailurrean Aita Santua (I)

Aita Santuaren huts-ezintasuna Vaticanoko lehen batzar nagusian erabaki zuten dogma mailako egia. Geroztik egin du euria frango. Kazkabarra ere bai, aldian behin. Orduz gero Elizak bat eta bera jarraitzen du bere eraketaren muinean. (Lurralde ezberdinetako gotzaien biltzarrak ez diote Aita Santuaren aginteari itzal handirik egiten). Hala ere, ordea, anitz ezberdina da egungo Elizaren, egungo kristau-elkartearen itxura, lehen Vaticano garaian zuenarekin berdinkatzen badugu.

Eliza orduan aldean zatitua arkitzen da gaur (zatiketa hitz hau, hemen, ez dut nahi eta ez sentidu negaiboan hartzen, ezta ere nahi eta ez, positiboan). Egungo Eliza alderdi askotatik ari da zatituago eta ezberdinago bihurtzen, eta hori, nahiz eta Aita Santuak han jarraitu Erroman, katoliko guzion batasunaren agerpen. Eta gaurko artikuluaren gaia Aita Santua, edo hobeto esateko Aita Santutza dugunez, aitatu dugun zatiketa horren agerpen bezala, Eliza barruan Aita Santuarekiko arki ditezken joera ezberdin berak har ditzakegu.

AITA SANTUAREKIKO JOERA EZBERDINAK

—Herri herriko kristauek begiramendu handia izan diote Aita Santuari. Egun ere hala diotela esango nuke nik. Aita Santua ez da edozein. Aita Santua bakarra izaten da gero! Aita Santua, nolabait esateko, giza-mailaz gainetik gelditzen den norbait da. Aita Santuaren aurrean malko gozoak isuritako kristau franko hilko zen.

—Beste askorentzat Aita Santu hori bera giza mailako bihurtu da berriz. Elizako hierarkian azken puntaraino heldu den gizon italiar bat gertatu da. Eliza katoilkoaren buru egiten duena da besterik gabe. Dezakean influenzia ez zaio ukatzen, bainan eragin hori politika mailakoa da nagusiki.

—Beste batzuentzat (eta orain nagusiki eliz-hierarkiaren azken nuturrean daudenei buruz ari naiz) Aita Santua bandera bat da, esannahi oso bat. Hauen joera ez da begiramendu edo inndiferentzia hutsean gelditzen. Hauei urruti bezain hurbil gertatzen zaie Erromako Gotzaia. Hauen joerak biziagoak dira. Hauen Aita Santuarekiko joera Elizaren egitekoarekiko ditzaketen postura ezberdinen ondorio da. Bi talde bereizi ditezke nagusiki:

1) Lehenengo taldekoentzat, Aita Santua, hark dioena, zerbitzariari gosaritakoan esana bada ere, esana dago eta kito. Aita Santuak omen duen guardia pertsonalaren luzapen lirake hauek. Aita Santuaren, eta bide batez egiazko kristau-egiaren gordetzeko beti ernai dauden gudari armatuak dira. Aita Santua salbatzeagatik Aita Santu beraren gainetik pasa behar bada ere, «eutsi goiai».

2) Bigarrengoetako zenbaitentzat Aita Santua Joxepaneko Braulio bihurtu da. «Aita Santuak esan al du hori? Zer esan handirik ez zeukak, halazankoa. Oraindik hortan al gera?». Hauek pozik, kristauok, eta batipat apaizak, geuregana dugun alferrikako eta atzerakoi sonaren zipriztin guziak Aita Santuaren bizkar utziko lituzkete. Aita Santua aitaturiko bakoitzean irripar egin behar duzu, eta bi aldetara begiratu, hots, inguruan garbi utzi aurrerakoietakoa zerala.

Kontuak honela diela, Aita Santutza hor dago. Kristau tradizioan zehar garrantzi izugarria izan du, eta hala du gaur ere. Sorterriko kristauengandiko bereizketarakoan, Erromako nagusitzarekiko iritzi ezberdinek burutu zuten banaketa. Luther-ek ere Erromarekin izan zuen etena, eta elkar mespretxu gorriz ikusi izan diren bi kristau talde sortu ziren. Katolikoen artean berriz, historian zehar eta gaur ere, egiazko batasun agerpen baino batasunaren iturburu gehiago gertatzen da duen aginte eta eraginaren poderioz.

AITA SANTUA ETA ELIZTARROK

Egungo Aita Santutza baiezteko era konkretuari erraza da kritika bat egitea. Errazegi. Zenbait zentralismo eta agintekeri joera nabarmenegi dira. Hala ere ezer gutxi aldatzen da. Horregatik kritika horretan berriro murgiltzea ez zait batere atsegin. Neork entzun ez dezakeen tokian txalaparta jotzen jardutea bezelatsu. Ni ez noa beraz betiko leloa berritzera. Besterik gabe, J. M. Diaz Alegriaren «Yo creo en la Esperanza» liburuko 108 eta 109 garren orrialdeak irakur ditzala aholkatuko nioke nahi duanari. Adar-jotzaile (humorista) baten ametsa agertzen digu bertan gure jesulagun zenak. Praktiko eta amets maila hutsezkoa bada ere, konstruktiboa da honek egiten duen kritika, besterik bada. Eta nola ukatu, amets hori egiaztaturik ikusiko genukeala gustora!

Amets hau egia-bihurtuko bada ordea, badago sortu beharreko aurre-baldintzarik. Aita Santutzaren egungo eraketa ez da elizaren barruan besterik gabe perretxikua bezela agerturiko zerbait. Hierarkiak izan duen eboluzioa, mendez mende eliza ulertzeko izan den erarekin besoz beso joan da eta gaur ere hala dijoa.

Honek esan nahi du elizak munduan zer egiteko duen beraztertu gabe, eta kristauok dezakegun eginkizun hori egiaztatu ezean, alferrikako dela Aita Santuaren, gotzaien edo apaizen agintegeria gehiegizkoari eztenka jardutea.

Elizak indartsu izan behar badu, egungo estrukturazioa, txikikeria batzuk salbo, kategorikoa da. Elizak nagusiki bere segurtasunari kaso egin behar badio, ez dizaiogun Erromari askatasun gehiago eska. Kristauok gure sinesmenaren egiaztatzean koldar, beldurti, ilargian, beste bizitzarako gertuketa hutsean jarraitu nahi badegu, ezin-egokiago datorkigu Erromako agintea, babestu egiten bai gaitu azkenik.

Bada esaera zahar bat (nork asmatua den ez dakit) honoko hau diona: «Herri bakoitzak merezi duen aginte-estruktura ohi du». Nik neuk ez nuke esaera hau izenpetuko, bainan beldur naiz hau asmatu zuenak ez ote gintuen kristauok buruan.

BIDE ITXAROPENTSU BAT

Agertu berri da Alemanian bene-benetan interesgarri iruditzen zaidan liburu bat: Reform und Anerkennung kirchlicher Ämter. (Eliz-karguen berritzea eta baieztea). Ez dut uste oraingoz itzulia ditekeanik. Hala baledi gomendatuko nioke gai hauek batere interesatzen zaizkionari. Protestante eta katoliko fakultadeetako irakasle eta laguntzaileek elkar lanean egina da, eta hain zuzen kristauon batasunerako Eliz karguen azterketa bat nahi eta ezkoa delakoan.

Kargu hoiek elizaren tradizioan zer sentidu izan duten aztertzen dute. Kagu hoien zerbitzutasuna zertan datzan, alegia. Azterketa itraropentsua gertatzen da benetan, eta nik juzka dezakedanez, umekeriarik gabe egina. Eliza katolikoak ez du egun reforratuen apaizgorik onartzen. Honek berekin haien eukaristi batzarrak ez onartzea dakar, eukaristian kristau ezberdinok elkarrekin parte hartu ezina.

Elka-lan honetako azterketak ondoren hau agertzen du: Teologia mailan ez dago gotzaigoan eta apaizgoan nahi ta ez elkarrengandik bereizi behar gaituen arrazoirik. Kristau batasun bidean ez da txantxetako pausoa.

Eliz-kargu bat ez dute liburu honetan aztertzen: Aita Santutza. Puntu honetan sakonagoak dira bi konfesiokoen arteko konpondu ezinak. Horregatik, azterketa bereizi bat merezi duela erabaki dute lankideek. Hortan dihardute orain.

Orain arteko ondorenetara, kristau tradizioan agertzen denez, Elizak munduan duen egitekoa azterkatuz iritxi dira. Aita Santutzaren prolema ere, bai teorikoa eta bai praktikoa, bide horretatik bakarrik aztertu daiteke, eraginkor bihur daitekean eran. Azterketa horren ondorio bezala batarik gerta daiteke Aita Santua kristauon batasunaren agerpen. Ez, noski, behin da berriz Aita Santua batasun horren baldintza nagusi dela esan, birresan eta oihukatzetik.

(Beste batez gehiago)

JEXUX MARI MUJIKA

ELIZAREN BERRI



ENE ILOBATXOAREKIN BERRIKETAN, SERIOSKI

Ilobatxoa eskolara joateko prestatzen ari zen. Bidenabar, haren etxera sartua nintzen. "Egunon" esan orduko, galdezka eraso zidan, galdera sakonez. Ez nuen gogo handirik hartaz jarduteko. Purrustaldi bat izan berria nintzen beste batekin; ene ilobatxoaren gaia ez zitzaidan oso gogoko; ez nkien nondik nora erantzun...

Ilobatxoaren amak —bere alaba orrazten ari zen— "etzak erantzunik gabe utz" esanz idan. Zerbait erantzun nion.

Neure etxeratzean, berriro nere burura ene ilobatxoaren galderak: "Aita Sainduari Izpiritu Saindua etortzen ahal zaio, osaba?" "Aita Saindua ez ahal da behin ere erratzen?" "Izpiritu Saindua Aita Sainduari, apostoluei bzala, suzko mihi itxuran etortzen ahal zaio"?...

Eta nik ene baitan ene ilobatxoaren aurpegi larriaren irudia galde eta galde. Eta neure buruari zerizkion galderak: nolaz hainbat larri erazi eta kezkarazi hamar urteko neskato bat horrelako arazoek? nolaz sar erazi adin horretan horrelako arazo korapilotsuak? zelako zerikusia horrela planteaturiko arazoek haur baten fede heziketarekin?

Ene ilobatxoak, axalkeria hura guztia azaldu ziena "señorita" zela esan zidan. Halere, ezin burutu izan nuen ene katrapila harekin. Halako itxuragabekeriazko arazoa iruditzen zitzaidan haurrei gauzak hala agertzea! Baina gogorrena, arazo hark beste mila korapilo sortzen zizkidala: nola adierazi ene ilobatxoari, egiaren bila dabilenean, zuzentasunaren bila dabilenean... bera ere Izpirituaren eraginez dabilela? Esaten nion, bai, oraindik orain hila izan zen bere herriko hura ere Izpirituaren eraginez zebilela (ene ustez); baina aurpegitik antzeman nion, ez zidala ulertzen.

Nola aderazi, suzko mihiak direlakoak, hizketa modu bat dela? Esaten nion, gaur gauza horren muina adierazteko, beste mintzairaren bat erabiliko gendukeela. Baina... ez zidan ulertzen.

Ene burutazio nahasi-mahasi haietan, konklusio honetara heldu nintzen: bide abstraktu samarretik nenbilela ene ilobatxoa gauza haietaz jabetu ahal erazteko. Eta ene irudimenezko elkarrizketa berria beste gisa batetara idurikatu nuen.

Jakin berri nuen herriko kasu bat gogorazten nion: herriko haur guztiak, eskolakoak eta ikastolakoak, udalekura joateko prantatzen ari ziren; baina haur bati, ene ilobatxoaren adiskide bati, amak ez zion udalekura joaten uzten; ene ilobatxoa ez zen ondo jabetzen adiskidearen amaren "arrazoinetaz", enetzat aski garbi zeuden arren.

Izpirituaren arazoaz argitasun apur bat kasu horretatik abiatuz eman nizaiokeela iruditu zitzaidan. Halaxe ekn nion. Ene irudimenezko elkarrizketan aski pozik ikusten nuen ilobatxoa. Ongi ulertu zidan, adiskideari laguntzeko asmoa hartu zuenean, Izpirituaren eraginez ari zela esan nionean. Orobat, ongi ulertu zidan, bere amak udalekura joaten uzten ez zion adiskideari lagun egitekotan bera ere joan gabe geratzea Izpirituaren eragina ez zela esan nionean; azaldu bait nion, hartara, adiskidearen ama guztiz lasai geldiduko litzakeela; min hartzekoa zela, noski, adiskidea herrian bakarrik utzi beharra, baina gauzak osorik harturik, hobeago ikusten zela hori, ez eta beste batek amor ematea; jakina, azaldu nion, azken erabaki horretara heldu baino lehen bazirela beste pauso batzuk: adiskide talde bat adiskide "zigortuaren" amarengana joan, e.a.

Pozik nabari nuen ene ilobatxoa Izpirituz emandako harekin. Baina zerbait gehixeago entzun nahi zuen. Ez zuen konprenitzen suzko mihi itxuran Izpiritua apostoluengana jaitsi zelakoa; ezin konprenitu zuen, hori guztia hizketa modu bat besterik ez zelakoa. Ezin asmatu nuen nola azaldu hori samar urteko ilobatxoari. Eta ene buruak, jira eta bira, hauxe eman zidan: "zure adiskidearen amak —esaten nion— udalekura joan gabe etxean geldiraziz, zerbait adierazi nahi dio: ez dagoela konforme inorekin herrian; hori ezin adierazi dio hitzez, eta jokabide horretaz adierazten dio. Antzinakoek ere, zerbait sakonik adierazteko, halats jokatu zuten: sua Jainko zela uste-edo zuten, eta apostoluak Jainkoz beterik izan zirela esateko, sua jaitsi zitzaiela esaten zuten". Ene ilobatxoari arazoaz jabetu zelakoaren poz irria zerion.

Baina beste jakin minik ere nabari nion. "Zergatik esaten digu "señoritak" —galdegin zidan ene irudimenezko elkarrizketan— Aita Sainduari Izpiritu Saindua etortzen zaiola?" Okotz-bigotetan izerdia zeridan. Ez zitzaidan erantzunik etortzen. Jira eta bira, argitasun puskat etorri zitzaidan. Honela esan nion: Txiki-txikitandik beste batzuen beharrean izan zara... gurasoen beharrean. Zer egingo zenduen gurasorik izan ez bazenduen? Horiek jaten, edaten eman zizuten, jantzi zinduten; horiek erantzun zizuten zerbait galdetzean. Familia, herria, gizartea, ez da nahas-mahas bat. Kristau herria ere ez. Izpiritua guztioi mintzo zaigu; baina bata bestearen bitartez. Eta ez edozela. Gidari batzuen bitartez.

Baina, ene ilobatxoa ez zegoen lasai; urduri nabari nuen. Honela galdegiten zidan: "Horretaz, nere adiskide "zigortuarekin" nola jokatu, Aita Sainduari galdegin behar ahal diot?" Zorrotz galdegiten zidan; ezpainak hestu-hestu eginik. Nabari zuen, ez zuela hori arazo formal hutsa, bere experientziakoa baizik. Horrez gero, ene erantzuna ez zein hain erraza. Lehenik, beraren experientzia hura jakin beharko nuen. Baina ene irudimenezko elkarrizketan irudimenezko experientzia bakarrik zetorkidan begi aurrera. Zera esaten zioten gajoari aldamenekoek: batek apala izan behar duela, ama batek bere alabarekin zer egin adiskideek baino hobekiago dakiela, adiskide baldin bazen "zigorturiko" adiskideari lagun egin behar ziola udalekura joateari utziaz, e.a. Nik, kezka piska batez, honela erantzun nion: Aita Saindu edo giari batek, Izpirituz jokatzekotan, berak izan behar duela esaneko handiena; Aita Sainduak ez daukala gauzaren bat pertsona bati pertsona bati dekretuz ezartzerik; Izpirituaren izpiritu izan behar duela; Izpirituak pertsonari barrendik eragiten diola; horrez gero, bere alabatxoa hala zigortzen zuen amak ez zuela ongi jokatu; alabatxoari arrazoinen batzuk eman behar zizkiola; behar bada, udalekuko arduradunen aurka arrazoin handienak izanik ere, erabat harturik, hobea zukeela alabatxoari besteekin joaten uztea... Gainera —esan nion—, nola eskatuko diozu Aita Sainduari zure adiskidearekin nola konportatu esan dizaizun? Aita Sainduak ez du ezagutzen zure kasua. Izpiritu Saindua hartan delakoak, ez du esan nahi, errebelaziorik izaten duenik; jadanik Kristok irakatsitakoa argitzen du Izpirituak, soil-soilik; ez du errebelazio berririk ukaiten Aita Sainduak; ezin asmatu du munduko txokoetan zer gertatzen den.

Eta berriro ere galdezka ene ilobatxoa ene irudimenezko elkarrizketa berrian: "Eta nolaz irakasten digu apaiz batek gauza bat, eta besteak bestea?" Hura komeria! Horretan ere experientzia bizia nabari zitzaion ene ilobatxoari. Behin batean, honela kontatu zidan: apaiz batek zera esan ziola: jaunartu aurreko ordu betean txiklerik ahoan ez zegoela erabiltzerik; ea, nik zer nioen. Eta nik farre egin nion. Ez zidan gaizki hartu. Gero ene iritzia azaldu nion. Lasai geratu zen ordukotz. Baina oraingo galdera honek, bere barren-barrenean prolema hura bizirik zeramala adierazi zidan: apaiz batek gauza bat, besteak bestea. Nolaz? Begietan urduritasuna nabari nion. Ez zitzaidan gauza erraza erantzutea. Bere gisako erantzun bat atera zitzaidan: ez da pentsatu behar, zure barneko prolemak apaizak edo Aita Sainduak erabaki behar dizkizunik; gehienera, kanpotik bide nagusi bat aurkeztuko dizute, egia nagusi bat, hildo jeneral bat; baina, bide horretan ustekabeko gauza asko aurkitu ohi da; nork bere-berea izan ohi du bidea; gauza partikularretan norberak du azken hitza; bide nagusia proposatzean, gehienean, kristau guztiok bat etorriko gara; baina, gero, gauza txikietara, partikularretara jaistean, nork bere experientzia izaten du; apaiz batek gauza bat, eta besteak bestea esatea, gauza normala da, hala behar du izan: norberari tokatzen zaio hartaz iriztea; jakina, horretarako, ikuspegi zabala beharko du batek; gauzak zirriztu batetik begiratu, ala Txindoki puntatik begiratu, alde handia ohi da. Esate batetarako, "zigorturiko" zure adiskidearen amak, badirudi, gauzak zirriztu batetik begiratzen dituela: uste du, berak herriko beste guraso guztiek baino hobekiago ikusten dituela gauzak.

Horrenbestez, eta azkenik, eta ordukotz, amaitu zitzaion ene ilobatxoari bere jarioa. Lasaitu bat hartu nuen. Poztu nintzen ene ilobatxoa, jostari, pozik ikusteaz.



AMUNDA

(c) Ministerio de Cultura 2005

ON JOSE MIGEL, GIZON ONA



Sona aundiko gizon baten eguneroko bizitza, interesgarri zaigu. Nolako izaera ote duen? Apala? Arroa? Etxekoekin atsegiña? Bere kidekoekin zakarrondo?

Munduan zear, jakinduria aundiko gizon bezela ezagutua den batekin, orain berrogeiren bat urte, bizitua nauzue. Nere aurtzaro eta gaztaroko oroitzapenak bizi berritu bearrean naiz. Oroitzapen oiek gorputzez tiki, baiña jakinduriaz aundi zan gizon baten irudia dakarkidate. Nolakoa zen Jakintsu ura? GIZON ONA ETA APALA. Nor zen? Euskal Erriak, gaur egunean, biziki maite duen gizona: «JOSE MIGEL BARANDIARAN JAUNA».

ON JOSE MIGEL AURREKIN

Amabi urte nituela Saturrarango Apaiztegian ezagutu nuen On Jose Migel. Gasteizko apaiz gai guziok bildu oi giñan, uda garaian, Saturraranen. Gure ibillaldiak mendira oi ziran eta gure zaintzaille, sarritan beintzat, On Jose Migel. Aritz baten itzalpean jarrita, aurrez inguraturik, ipuiak konta-kontari jardun oi zitzaigun On Jose Migel. Beste bat, beste bat zaiotsaten aurrek, eta irriparrez, aspertzeke orain ipui bat eta gero bestea leertuko ziren On Jose Migelen ezpaiñetan. Bere aapetik entzuna dut onoko au:

«Jakintsu bat, egun batez, itsasora irten zan arrantzale batekin. Jakintsua, arroa izaki eta, galdetu zion Arrantzaleari: Filosofiaz ezer ba aal dakik? Ez, Jauna, ezertxo ere ez. Gizaajoa bizitzaren erdia galdu duk filosofia ez jakiñik. Badoaz aurrera eta bat batean ekaitz gogorra sortu zen eta ontziak tira bira egin. Arrantzalea eta jakintsua ur gaiñean gertatu ziren. Oiu batez diotsa Arrantzaleak: Jakintsu, igeri ba aal dakizu? Ez, ez, ez! Gizaajoa, bizitza osoa galdu duzu. Alaxe gertatu ere: Arrantzale ez jakiña, laister zan igerika itsas bazterrean; bitartean, jakintsua, bere jakinduria eta guzti, itota galdu zen».

Aurtzaroko oroitzapenak. Leenbizikoz, zinema ikustea, benetan gertatu zitzaidan arrigarri. Leen zinemako zorion ura On Jose Migeli zor diot. Amaika arratsalde atsegin igarotakoak gaituzu mutiko apaiz gaiak, On Jose Migel ber berak, bere makinatxoarekin, eman oi zizkigun zinemari esker. Isilla zen garai artako zinea; Otsekiko (sonoro) biurtu oi zigun On Jose Migelek. Begien aurrean ikusten genituen irudi utsei, gatz eta piper ematen bazekien bere tenor abotsaz gure On Jose Migelek. Charlot eta antzekoen paillasoen aurrean gure algarak eta gure parra lertu bearrak ,zoriontsu egiten zuten Jakintsu Aundi aren biotz aundia. Aurren erdian, irri-barrezka, ain apal agertzen zen gizon ura, nork esan ain jakinduria aundikoa zanik!

Aurrekin gertatuetatik, amaika gertalditxo-anekdota izango ditu On Jose Migelek. Ondorengo bi auek bere adiskide batengandik ikasiak ditut:

Erri koskor bateko amabi urteko mutikoa, leenbizikoz sartu zen Seminarioan. Gaua iritxitakoan mutikoaren istilluak ez ziran txantxetakoak. Nork bere gelan lo egin oi genuen eta mutikoa ez egon oituta bakarrik lo egiten. Laster ebaki zuan auzia gure On Jose Mielek: Aurraren koltxoia artu, bere gelara eraman, oea egin eta mutiko izutuaren loa zaitu.

Beste batean, mutiko batek ez zuela oiñetakorik ibillaldi-paseoa egiteko eta, on Jose Migelek bere zapatak eman omen zizkion. Neurri berdin xamarrekoak zatezkeen nunbait aurraren eta on Jose Migelen oiñak.

ON JOSE MIGEL, GAIXO ZAINTZALLE

Gasteizko Seminario ederrean, amazazpi urte nituenean sartu nintzen. Gerla madarikatura arte, bertako bizilagun izan nintzan. Latiña ikasten zuten aur guzien Erretore eta Filosofo eta teologoen Erretor-ordezko genuen on Jose Migel. Bere erakusketak Filosofoen artean egiñikoak ziren.

Garai artan, Seminario guziko gaixoen Zaintzaille Nagusia zan on Jose Migel. Arretatsu eta gozoki zaitu oi zituen gaxoak. Gela batetik bestera amaika ibillaldi egindakoa On Jose Migel. Gripe aldian, gaixoak ugari zirenean, aurrekin kezkatzen zan batez ere: Bi edo iru bisita egunean, tapakiak bear bezela jarri, sukarra artu eta abar.

Jaunari esker, ia beiñ ere ez nintzen gaixotu garai artan. Bein ordea gripe txar batek oeari josita utzi ninduen. Eldu zan ni ikustera on Jose Migel. Orioko Arraunlarien argazki pilla bat ageri zan nere ikasketako maai aurrean. Erdi parrez, erdi serio esan zidan: «Oiek al dituk ire debozioko Santuak?».

Seminarioko eguneroko bizitzak lotuera aundia zemaion On Jose Migeli. Etnolojia, Etnografia eta beste bere Ikasketarako beta aundirik ez zuen. Nork esan ordea? Ainbat lotuera ekarri zigun gerrak, alderdi batean, askatasuna ekarri zion On Jose Migeli. Esker aundirik gabe uxatu zuten Apaiztegitik. Bergarako Apaiztegia, gerra garaian, Irakasle berriekin osatu zutenean, On Jose Migel garaiko Irakusleei, beste itzekin bazan ere, *Ogi-jale* baizik ez zirala, esan zitzaien. Tiki ziruditen eginkizun aundi asko utzi zuen On Jose Migelek Gasteizko Seminarioan. Gerrari esker, bear bada, jakintza irabazle atera zan. Iñork ez daki ordea zer galera izan zuten ondorengo apaizek.

ON JOSE MIGEL IRAKASLE

Jakinduriaz jantzia zegoela On Jose Migel esatea, zozokeria bat iruditzen zait. Nerekiko, Erakusle bezela, On Jose Migelen meriturik aundiena ontan datza: Ikaslearen onagatik, bere ikasketa, bere azterketa eta inbestigazioak sakrifikatzen zekien gizona zala. Ikasleak gauza sakratu ziren on Jose Migelentzat. Arretxek bai lanean jarri bere ikasleak. Itzez ordu erdi batez azaltzen ziguna, guk, kuaderno batean, idatzi bear izaten genuen. Gero, berak, guzia irakurri egin bear. Gure zozokeria aiekin, denbora galtzea ez ote zuan egiten On Jose Migelek? Jakintza eta azterketa-inbestigaziaren kaltetan ez ote zan denbora galtze ura? Ez zan itzi ortakoa On Jose Migel. Bere jakintza interesgarri bazen, ez zen gutiago bere ikasleen etorkizun eta jakinduria.

Alferrekoak ziran azken esamiñak. On Jose Migelek ongi ezagutzen zituen bere ikasleak.

ON JOSE MIGEL EZITZALLE

Gure aurrekoek diotenez, gaztetan jenio bizikoa omen zen On Jose Migel. Ezitzallea baiño geiago Inspektore. Gogor xamarra. Gozo gutxikoa.

Ez dakit ala zen. Ez balitz, naiago nuke ala izan balitz. Utikan amaren sabeletik santu diren oiek. Okerrerako grinez jaiotakooi, orrelako santuek ez digute erakutsi aundirik emango.

Nik ezagutu nuen On Jose Migel bizia bai baiña patxada onekoa zan, serioa baiña alaia. Noiz edo noiz aserretu oi zan, sekulan ez ordea bere onetik atera. Gozoa, atsegiña, maitea zan nik ezagututako On Jose Migel. Leen ez zala orrelakoa? Bejondeiola On Jose Migeli. Jakintsu izatea baiño zaillagoa dala uste det, nork bere burua ezi eta norbere izaeraren joera makurrak zuzentzea.

Filosofiako Ikasle nintzalarik, ezagutu nuen geien gure On Jose Migel. Emezortzi urteko mutil sendoa nintzan. Garai artan eginkizun makurra eman zioten On Jose Migeli: Gure Prefetoak illero epaitzen gintuen eta papertxo batean ezarri gure pekatu eta utsegiteak. Papertxo aiekin ez zuen zer ikusirik On Jose Migelek. Emezortzi urtetik ogeita bat bitartekoak, illero joan bear izaten genuen ordea. D. Jose Migelen aotik gure pekatuak entzutera. Ez dut uste eginkizun arek on egiten zionik on Jose Migeli. Baiña, illeroko bisita aiek guri on aundia egiten zigutela, aitortu bearrean naiz. Nola alako noten aurrean ere, sekulan ez itz gogor bat bere aoan, sekulan ez erritarik. Beti jostalari eta irribarrezka agertzen zitzaigun eta egiramen eta errespetoz mintzatzen.

Entzuteko beti prest zegoen. Elkar izketa gozoenera berak eramango zin tuen. Arrazoia zurea bazan eta ez Prefetoarena, ez zizun ukatuko. Obea izateko gogoz aldegingo zenduen beti bere ondotik.

Jakinduriaz aundia dugun On Jose Migel, ez ote are eta aundiago gizatasunez?

—oOo—

Oraindela amabi bat urte, Ataungo San Gregorion Misio Santuak erriari zuzentzen ari nitzan. Ekiñaldi bat, arratsaldean nuen. Baserrietako emakume eta gizonezko taldetxo bat izaten ziran nere entzule. Gizonezko nekazarien artean, sotanaz jantzitako gizon koskor bat ikusi al izango zenuen: ON JOSE MIGEL. Mundu zear, bere jakinduriz ain ezaguna zana, nekazarien artean nere itz kaskarra entzuten. Bere aurrean itz egin bearrak lotsa ematen zidan. Kopeta bear zan nere Maisuaren aurrean mintzatzeko. Ez zegoen ordea beste zer-egiñik. Egun guziz, eten gabe, aste artan nere entzule izan zan On Jose Migel. Elizkizuna amaitu ondoren, izketalditxo bat egiten zuen nekazariekin eta etxera.

Ain apal eta otsan agertzen zaigun gure On Jose Migel, Nolatan ez dugu biotzez maite izango?

—oOo—

Omenaldia On Jose Migeli... Gure zitalkeri eta efozkorkeriak gure artetik uxatzea litzake omenaldi onena On Jose Migelentzat. Euskal Baratz eta Euskal Kulturan lanean gabiltzanok, naiz eta gure iritzietan desberdiñak izan, ikasi dezagun gure Maixuagandik, elkar izketa gozoan, bat bestearentzat, apal, atsegin eta komprensio aundikoak izaten.

Arostegitar Jok

Don Jose Miel, ezitzaille eta suspertzaille



Don Jose Mielen irurogei urteko lanak, zeiñek neurtu? Berak idatzi dituen aiña orrialde bearko genituzke.

Nik arlo ori ez dut ikutuko. Bistan agertuko da, laister bere lan-bilduma osoa argitarako danean.

Bera, ez da idazlan esparru orretan bakarrik jardun; bere ekintza zabalagoa izan da, naiz eta zabalgune gordeagoak izan baditu ere ekintza orrek...

Irakasle izana degu Gasteizko Seminario Aundian, eta bera an zegoan artean izan zuan Seminarioak aunditasun bereizia. Gimnasium eta Idearium aldizkariak (Seminariokoak, alegia) ortxe daude lekuko eta testigu. Ez noa orri ikutzera.

Irakasle zalarik ofizialki egin zituen lanak ere ez ditut aipatuko. Ba al dabesterik oraindik?

—oOo—

Bai.

Mutil gazte giñan garai aietan, burruka-garaiko mutil gazte, bizarra labana aundiaz ebakitzen genduenetakoak.

Giroa zegoan aize guztietara zabaldua. Burruka giroa: burruka agintaritza lortzeko, burruka kalean nagusi gertatzeko, burruka ideolojiak zabaltzeko, burruka ekintza guztietan.

Munduko aize zabalak gure erritik pasa oi ziran; baiña, argi eta garbi, sator-jokorik gabe, mozorro-jantzirik gabe. Bakoitzak bagenekien nor zein zan eta zer jokabide zeraman. Gaurko egunez ez da ori oso erreza jakiten; badabiltza bai, gauza aurrerakoi eta ausarta balira bezela, orduko esankizun zaarrak berriro...

Burruko giro artan Don Jose Miel genduan argi emaille. Begi-bista zabaltzen zigun. Kultura gaietan eta gizarte arazo guztietan bera gendukan leio-irikitzaille. Gure buruko ikusmena 180°tan zabaltzen zigun mundu zabaleko arazo guztietan.

Nik ez dut orrelako beste ezitzaillerik izan!

Izketaldi bakoitzean zekarkigun berebiziko argi-aberastasuna. Eskolatik at ere artu emanak genituen alkarrekin, eta elkarte bakoitzeko krisaillu berri bat pizten zigun gure buruko ganbara illunean.

Itzik jaso gabe, bere esanari inportantzirik eman gabe- apal-apal eta lagunkide baten antzera.

—oOo—

Gai guztiak zetozen egoki bere ezpaiñetara, baiña, batez ere gizarte-arteko gaiak, soziolojia gaiak, alegia.

Mundu zabalekoak; baiña, batez ere, Euskalerrikoak.

Berak erakutsi zigun mundu zabalari begiratzen eta Euskalerriaren arima aztertzen, une artako euskal arima.

Erri batek zuztarrak ditu, eta erro oien billa joaten erakutsi zigun Arkeolojiaren bidetik, leizeetako illunpeetan gorderik zegoan Euskalerria ezagutzeko: Santimamiñeko marrazkietan, Jentilletxetako lanabesetan, Urtiagako buru-ezurretan dagoena, alegia.

Baiña ez ori bakarrik, Etnoljia bidetik, gugan dirauan Euskalerri zaarra ezagutzen ere erakutsi zigun. Badala Euskalerri zaarreko gaurkotasun bat: orduko leizeetako pentsaerak oraindik ere gure erriaren oitura, esan eta siniskerietan irauten duela, alegia.

Don Jose Mielek berak ematen zizkigun galderak Gabonetako oporraldietarako, Erantzunak ematen saiatu bear genuen guk. Zenbat eta zenbat gizaseme gazte ez ote zituen azterketa lanean jarri! Ori jakiteko naikoa da 1921-1935eko Anuario de Eusko-Folkloreak ikustea. Orduko apaiz-gaiek egindako lan ugari arkituko duzue.

—oOo—

Bada besterik.

Eskolatik at, talde bereziekin izan zituan bere bilkunak ere. Euskalerriari buruzko billerak.

Bere ardurapean sortu genuan "Jakin-Bide-Batza" izeneko bazkuna, historia aldetik, arima aldetik, soziloji aldetik gure Erria aztertzeko asmoz. Seminarioko Erretorearen baimena lortu genuan 1935 urteko Abenduan. Zazpi illebetetara gerra sortu zan gure artean; beraz, sei illebete bakarrik iraun zuan alkarte arek. Historia-taldekoak D. Manuel Lekuona zeukaten buru eta andik sortua da Eliseo Mañarikua, Bizkaiko historiagillerik ospetsuenetakoa. Don Jose Mielek bereziki "Sicologia Colectiva" taldeaz egiten zuan lan. Talde bakoitzak, bere aldetik, aztertu bear zuan Euskalerria, galdera-erantzunen bitartez. Baiña, bestela ere lan egiten zan.

Ekaitza sortu zanean, joan zitzaigun gure gidaria babes-billa Pirineoetatik aruntz eta gelditu giñan ume-zurtz eta gerrapean. Jakiña, gerrak berekin dakar ondamendia eta ondatu zan muintegia ere. Aize bolarak eta ur jasak aurretik eraman arren aziak, beti gelditzen dira bakan batzuk lurrari erantsita, eguzkiaren eta giro obearen zai. Eta gaur eguneko zenbait lan azi aien emaitza dezu.

—oOo—

Aranzadi eta Eguren, Arkeoloji-gaietan, Don Jose Mielen lagunak ziran; baiña, Etnolojiak berari zor dio bizia Euskalerrietan. Berak jaso zituan il zorian zegoen euskal-arimaren zantzuak, eta bera izan da arlo onetan lan egin dutenen suspertzaille eta gidari. Betikoz galduko ziran Euskalerri zaarreko arimaren agerpenak berak jaso zituan eta oiekin arkeolojiaren bideak argitu. Nik uste, gure Erriak ez diola zor diona sekulan ordainduko.

Lan egin dezu Don Jose Miel etenik gabe, gau eta egun, negu eta uda, pakean eta gerran, zarata-garaian eta sil-unean: giro guztietan eta gelditzeke.

Bejondeizula zuri eta omenaldia eratu dutenei. Biotz-biozetik.

A. ARRINDA





(c) Ministerio de Cultura 2005

Joxemielen lehen urratsak

Alde batetik, Z. Argiako zuzendariaren gogoa betetzearren eta bestetik, batipat honetxegatik, Joxemielekiko dudan zor paregabea zertxobait ordaintzearren heldu diot hain emankorra ez den luma honi. Eta bide batez, irakurleak jaun honen bizitzako lehen urratsak jakin ditzan. Zeren eta ene ustez, eredutzat hartzekoak bait dira; eta batipat, guk gaztetxook.

Joxemiel, duela laurogeita hiru arte jaio zen. Eta Ataungo Perune-Zaharran jaio ere. Kozkortuz edo handituz zihoan, eta soroetan lanean ziharduen gero liburuz eta idazkiz estalita biziko zen (eta bizi den) apaiz humil hura. Bere lehen ikasketak Ataun San Gregorioko ikastetxe nazionaletan egin omen zituen. «Pipar» egitea ere, ordea, arras laket omen zitzaion; eta gurasoei eskolara zihoala esanik etxetik irtenarren, maiz geratzen zen ikastetxera iritxi gabe. Batzutan, eskola-bideetan zeuden estalpetariko batetan; beste zenbait alditan, berriz, Gomensoroko Intsustiren inguruan iragaiten den autobidearen azpikaldean dagoen bidetxoan ezkutatzen zen. Orain ez ezik, orduan ere ez zen nonbait geldi egotea laket zitzaionetarikoa. Bainan eskolatik «pipar» egite horrek, ez al dizu irakurle galderaren bat sorrarazten? Gero eta orain liburu artetik atera gabe etsitzen ez duen gizon harek, zelan egin zezakeen adin sakratu hartan eskolatik opor? Hauxe erantzuna erraz aurkitzen ez zaion galdera! Lagunek bortxatzen ote zuten horretara? Ala, ikasteko gogo larregirik ez zuen sumatzen bere barrenean? Ez bat eta ez beste. Hara! Bi arrazoietatik batek ere ez dio lehen egin dudan galderari egiazko erantzunik ematen. Berak dioenez, irakaslea gogor-xamarra eta esku arras nerbiosak zituena omen zen. Eta hor dago koxka! Baita, eskolatik noiznahi «pipar» egitearen arrazoia ere. Bainan ez omen zen irakasle txarra. Gaztelaniaz ulertzen ez zituzten gai guztiak euskaraz esplikatzen omen zizkieten.

Gero, bizitzaren joanean, bere ama zenak zera galdetu omen zion: hots, ea apaiz eginen litzakeen. Berak ordea, ezetz ihardetsi zion.

Gure Joxemiel ordea, ez zen nonbait bere esanak aztertzen ez zituenetarikoa; pentsalaria izaki. Zeren eta ama-zenak galdera hori egin ondoren, bizitzan apaiz izateaz pentsatzen ihardun zuen berak. Zenbat eta zenbat jira-bira eman ote zizkion ama-zenaren galdera hari?

Halatan, pentsa eta pentsa ziharduelarik, apaiz egin behar zela erabaki zuen berekiko. Hasia zen ordurako mundu aldrebes hartako gauzetaz serioski xamar pentsatzen, eta ongarri iruditzen zitzaion bera apaiz egitea. Gainera, apaizen bizimodua gustatzen zitzaion. Eta egun batez, amari bere eritzia agertzea pentsatu zuen, eta horretaraxe ausartu zen .Apaiz egin behar zuela esan zion amari; bainan amak ezetz ihardetsi zion. Arrazoia: karrera zaila zela orduan ikasten hasteko.

Joxemiel, guztiz konforme ez (zeren eta huraxe bait zen bere grina) bainan amak eman zion ihardespenaren arrazoia azterturik eta egia zela ikusirik, isilik geratu zen.

Handik egun batzutara, latina zertxobait ikasten hasi beharko zukeela esan zion bere aitak. Eta Joxemielek ez zion ezezkorik ihardetsi. Bestalde baizik! Irrika biziz onartu zuen aita-zenaren proposamendua. Hauzoko Segundo Garaialde izan zuen irakasle. Eta beronekin, ikasi ere ikasi omen zuen latina zerbait. Bai, bai; saiatu faltaz bederen ez zen ikasi gabe geratuko. Ez horixe!

Gero, Baliarrain herrixkako «preceptoría»-ra joan zen latina ikastera. Handik, ikastetxe hartatik alegia, hiru hilabetez behin joaten ziren heuren etxetara ikasleak: hots, Eguberritako, Aste-Santuko eta udako oporketetan. Joxemiel, Eguberritako jaialdian triste eta ilun etxeratu zen.

Gaztelania gutti, oso gutti omen zekien; eta bere burua ittota, irteerarik gabe zekusan. Ezkorra (pesimista) izaki. Bide hari jarraituaz, etorkizuna oso ilun ikusten zuen: berak ezer ikasteko posibilitaterik ez (gaztelera gutti bait zekien eta orduan ere zoritxarrez, ofizialki onarturiko hizkuntza gaztelania zen) eta bere etxean bere etxekoak jo ta ke beragatik lanean. Eta hori, zuzengabekeria handia iruditzen zitzaion. Hara gure mutikoa gazterik gizonduta!

Horiek horrela, ez zuen birritan Baliarraingo «preceptoría»-ra bueltatzeko asmorik ekarri. Eta egun batez, bere aitak, zera galdetu zion: ea zergatik ez zuenikasten jarraitu behar. Eta Joxemielek, kursoaren bukaeran eta azterketen ondoren kalabazaz hornituta agertzeko beldurra zuela esan zion. Eta zelan ezer ez zuen eginen, ea zergatik haiek beragatik etxean lanean jo ta ke aritu behar zuten esan zion. Orduan bere aitak, inoiz ahanztu ez zaion kontseju bat eman zion: hots, ikasteko gogoa baldin bazedukan, kalabaza bat nahiz lau suspenso atera arren ez etsitzeko; etxean ez zitzaiela axola eta.

Horiek entzunik, pozik bueltatu zen Baliarrainera Joxemiel. Ikasten ihardun zuen ikastaro osoan zehar, eta iraila iritxi zenean, Gasteizera joan zen bere irakasle eta ikasle lagunekin esaminatzera. Joxemiel, lehen bi kursoetako azterketatara agertu zen, eta bai aprobatu ere alazankoa! Je!

Bainan gertatu zitzaion azterketa haietan gauza bitxi bainan sakon bat. Epai-mahaian zeudenetariko batek, gizon dotore bat alajaina, honela esan zion bere «matrikula orria» ikusirik:

—Ataungo frutue.

—Ez hola ohittue.

Horixe erantzun zion ondoren Joxemielek. Ez al da erantzun egiazkoa eta benetakoa familia behartu batetako seme batek emateko?

Gasteizen, bazkalondoan eta notak jakin ondoren, beren (irakasle eta ikasle) adiskide baten etxera joan ziren lagun harek agindurik. Etxe hartakoek «pirotecnia» lantokitto bat omen zedukaten eta joan ziren mutiko haiei (Joxemieli ere bai) eskutara bat haina «altxafuego» eman zizkieten.

Pozez beterik eta altxafuegoak leihoetatik boteaz etorri ziren tren batetan. Eta Joxemielek azken altxafuegoa, etxera oinez zetorrelarik «Umarki»-ko zubian (Ataunera sartzean, alegia) bota zuen.

Etxean pozik ziren denak. Bainan handik hilabete pare batera, hain maite zuen ama hil zitzaion Joxemieli. Artean mutikoa zen. Izugarrizko tristurak gainditu zuen bere barnea. Eta urte batzu iragan zuen ama hil egin zitzaiola bere lagunei eta beste inori esaten ausartu gabe. Arras lota utzi zuen nonbait ezbehar haretxek.

Eta amaitzeko esan dezadan, apaiz karrera egin zuela. Gasteizko apaizgaitegian egin ere. Gainera, apaizgaitegi honetako irakasle izatera iritxi zen urte gutti barru.

Bestalde, jai edukitzen zituen egunetan, Matematikak eta beste zenbait gai ikasten aritu ohi zen. Matematikak dibersio gisara hartzen zituen, eta kalkulo anitz egina omen da bere mutiko-haroan. Arratsaldeetan mendiren batetara joaten zen Geologia ikastera: hainbesteraino gustatzen omen zitzaion...! Libururen bat ere eramaten zuen, eta bai irakurri ere zuhaitzen baten oinetan.

Etxean ordea, erabat triste eta ezer dibertitu gabe bizi zelakoan zeuden. Eta errukiturik, «eskopeta» bat ekarri zioten. Joxemielek begi onez hartu zien tresna berria; ez asko gustatzen zitzaiolako ihizean ihardutea, etxekoak pozik gera zitezen baizik.

Eta orai, ez dut uste mutiko-haro polita eta jolastia iragan zuela esaten inor ausartuko denik. Ene ustez, nahiko bizitza latza eta gogorra jasan zuen bere lehen urteetan. Eta ni, hauxe esatera ausartuko natzaizue irakurle gaztetxooi: hots, guk eredutzat hartzeko bizimodua dela bere lehen urteetakoa. Pentsalaria, etorkizuna aztertzen duena, harrokeriarik eta arinkeria handirik gabea. Horrelako bizitzaren udaberri bat behar dugula deritzat, adiskide irakurle. Eta hori, ene ustez, Joxemielen bizitza-haro horretan garbi ageri da.

Demagun izanen zituela zaputzaldiak, eginen zituela gixaixokeriak ere... Bainan tira! Orokorki bederen, hortan har dezagun eredutzat.

Nik neure aldetik, ez diot aparteko laudoriorik eginen ne herrikide honi. Bakarrik, esan dizaiodan, bere lana (obra) ahal dudan neurrian ikasten saiatuko naizela. Zeren eta ez bait dut uste suz erretzeko idatziak izanen dituenik hirurehunen bat idazki (liburu eta artikulu), gu pertsonok hezitzeko baizik.

Ta beste gabe, mila eta mila esker eta agur t'erdi Joxemiel!

Trikuarrieta

D. Joxe Miel, Bertsolari

Inork gutxik jakingo du noski D. Joxe Miel bertsolari ere badugula. «La Constancia» gerra aurreko egunkarian idatzitakoak dituzu onako auek. «Michel» deituraz izenpetzen zituen. 1908tik 1912ra tarte ortan idatziak ditu. Or doazkizu orduko idazkera eta guzti.

BIZI GERA?

Guchi gerala gure etsayak
deadar egiten dute
eta bururik ez daukagula
askok esaten digute.

—oOo—

Guchi bagera, ez bildur izan,
gure gain aurki zerate,
Zertarako ba ots aundiyakin
guchiren kontra zatozte?

—oOo—

Gañera, gure iritziyetan
egidunak ta geyenak,
zazpireun milla izandu arren,
ez dira gauza berdiñak.

—oOo—

Buru bageko bagiña berriz
aspaldi giñan galdurik,
orrelakuak ez dutelako
bestek garaitu bearrik.

Gorosabel eta beste kondairalari askok Ataungo San Gregorio eliza dagoen tokian bertan zela uste zuten Atabit-ko gaztelua. Baina D. Joxe Mielek egin zituen azterketen bidez jakin dugu ez dela egia. Gaztelu ori Jentilbaratzan egon zela erakusten digu jakintsu onek 1916garrenean egin zituen azterketen bidez. Ona gazteluari eskaintzen dion bertsoa.

ATABIT-KO GAZTELUA

Aran chiki polit bat
Da mendi artean;
Loracho bat dirudi
Elorri tartean.
Muño tontor alaya
Da erdi-erdiyan,
Alchatzen dala gora,
Zeruaren billan
Zuaiztiyak dituzte
Onen egiyetan
Diran belardi denak
Zaintzen otzaruan.
Agaunza ibaya berriz
Bere barrenean
Biurka jechitzen da,
Suge baten gisan.
Iturri ugariyak
Sortzen dira azpiyan,
Barrundutzen dirala
Belardi berdean.
Anziñan Atabit-ko
Gaztelua or zan
Orain eleiza dago
Beraren tokiyan.

D. Joxe Miel ez dute ukitzen antzinako gauza zaharrek bakarrik. Enbata eta ekaitz gogor batek sekulako ondamendia egin zuen Bermeotarren eta arrantzaleen artean. Naigabe orren berri ematen digu bertsotan.

EUSKAL ERRIYAREN NAIGABEA

Ujola batek gau illunean
Erruki bage,
Urpera ditu euskaldun asko
Amilkatu.
Euskal-errika alai zegon ta
Oh ez bearra!
Anaitalde bat ekaitz gogorrak
Digu ostu.

—oOo—

Anai maite ta ongarriyak,
Etzerate il:
Biyotzan Jesus duan kristaurik,
Ez da iltzen;
Berak amorez adierazi
Zigun esanaz:
«Nerekin lagun ibiltzen danik
Ez da galtzen».

—oOo—

Bañan negarrez urtutzen dago
Euskal-erriya,
Bere barruna ezin duala
Atsedendu:
Biyotz biguña estutasunez
Zatitzen zayo:
Malko garratza begiyan sarri
Azaltzen du.

Iltzen zegoen baten itz auek arturik, «Ondo il, ondo bizi izateko; ondo bizi, ondo iltzeko. Agur betiraunde guztirako», egin zituen beste bertso auek.

IRUDIPEN UTSA

Udaberriko egun bian
ekuzkiyaren ateran,
loracho eder, churi-gorri bat
sasi tartean zeguan.
Bere gañeko basal gozua
oraindik galdu etzuan;
distiatubaz orri chabalak
izar bat ematen zuan.

—oOo—

Lorecho arrek ikusirikan
edertasun ain aundiya,
beregan ziyon pozez beterik;
«Nor da ni bañan obia?
Besterik ezin izan liteke
ni bezin eder, garbiya;
belar, sasi ta zuaitzak denak
ezertarako ez dira».

—oOo—

Ala ziyon, da, non choricho bat
saltatzen zayon gañera:
orricho denak banakaturik,
erori ziran sasira.
Andik aizeak, ezin oparik,
bota zituban lurrera;
an chimeldurik, usteldu eta
biurtu ziran autsera.

—oOo—

Orra munduko edertasunak,
jolas da farrak zer diran
irudipen uts, poz laburra ta
amets ederrak buruban.
Ikusirik ba zer dezagun da
zertara biurtzen geran
ikas dezagun ondo bizitzen
Jaungoikuaren Legian.

Bizi luzeko eta frutu askoko lore izan dugu D. Joxe Miel. Jaunak luzaroan gure artean gorde dizaigula frutu ugariagoak emanaz.

M. ATXAGA

(c) Ministerio de Cultura 2005

Joxemielen lana, zeren emaitza ote?



Bai, egia da. Horre nlan edo obra handia egin ahal izateko zertan aritu ote da Joxemiel? Liburutartetik atera gabea ote dugu? Jolasik nehoiz egin gabea?

Ez, egina omen da bere garaian jolas saio batzu. Bainan baita ikasi ere bapo. Bai alazankoa! Berari gehienbat gustatzen zitzaizkion gaiak Matematika, Fisika ta Filosofia ziren. Gasteizko apaizgaitegian erlijioaren oinarriak ere sakonki aztertzen saiatu zen. Oporketa batzutan berriz, Geologia ikasten ziharduen.

Gasteizko apaizgaitegian apaiz egin zen. Bere apaiz ikasketak aurrera zeramatzilarik, udatan maisutza ikasketak egin zituen. Teologiako urteetan, erlijioaren oinarriak ta historia ikasi zituen. Erlijio prolemak izan zituen ordea. Handiak gainera. Eta horietxek aztertzen eta zegokien erantzuna ematen saiatu zen. Buruhauste edo erlijio arazo horiek argitu nahiaz. «Erlijio Ethnologia» ikasketak egin zituen; gai horri buruzko liburu anitz irakurri eta gainera, Wilhem Wundt irakaslearen kurso batetan izan zen Leipzig-en. Baita ere, Graebner irakaslearen beste ikastaro batetan kolonian.

Prestaketa guzti horien ondoren, bere ekintzei taxuzko zuzenbidea emanen ziela eta apaiz egitea erabagi zuen. Berak zera pentsatu zuen: hots, «JAINKOA HELBURU TA KRISTO EREDU» harturik, apaiz egin behar zuela.

Oraintsu ukitu dudan pundu hori dela eta zerbait gehiago esan nahi nuke. Kasu honetan, Joxemiel, eredutzat hartzeko modukoa azaldu zaigu. Bere prolema latzak eta neketsuak eta beldurgarriak iragaitea tokatu zitzaion. Arazo ta buruhauste handiak jasan zituen. Bainan ez zuen, haatik, erlijioa bazter utzi; ez zituen bere arazo ta buruhauste zein baino zein latzago haiek xoriak kaiolatik irtendakoan aldegiten duten gisa hegan bidali. Ez, ezta urrik eman ere! Bestalde baizik! Erantzun bidezko ta zuzen baten bila ibili zen. Eta agian, aurkitu ere aurkitu zuen.

Guzti hortatik, zer azpimarkatu genezake? Hots, zer da guretzat garrantzi gehiena dadukana? Ene ustez, prolemak bazter ez uzten jakitea; erantzun sakon bat ematen saiatzea. Horrela tinkotzen eta gizontzen bait da edonor. Bide guztiak libre hesirik gabe aurkitu dituenak nongo esperientziak edukiko ditu? Eta ikasten ez badugu («ikaste» horrekin ez dut Matematika eta Fisika bakarrik esan nahi), gizagajo tzar batzu bagara, zer izatera iritxiko gara? Ez dut uste mundu osoan, hain handia izanik, nehoiz lurrera erori gabe oinez ikasi duen haurrik dagoenik, egon denik eta egonen denik.

1913-gn urtean, Gasteizko apaizgaitegiko irakasle egin zuten.

Burgosko eliza-unibertsitatean urte bat (ikastaro bat, alegia) ihardun zuen. Eta teologiako batxiler-lizentziatura lortu.

Wundt-en aholkuz, ethonologia ikasketak sakontzearren, azterketa batzu egiten hasi zen. Lehenengoak Ataunen egin zituen. Gutti gora-behera hogei ta sei urte zituela, ethonologiak beharturik (mito, esaunda, etab.) arkeologiara pasatu zen. Ataungo Jentil-Baratzara joan zen, zeren eta hura jentil batzu ehortzitako lekua zela bait zion mitoren batek. Han ordea, ez zuen giza-hezurrik aurkitu. Bainan gauza bat erabagirik geratu zen: hots, egun San Gregorioko eliza dagoen lekuan egon zela uste izan zen Ataungo Gaztelua, Jentil-Baratzan izan zela eraikia. Joxemielek berak ere, azterketa hori baino urte batzu lehenago, Donostiako aldizkari batean («La Constancia» hain zuzen ere) bertso bat argitara zuen, esanaz, Ataungo gaztelua egun San Gregorioko eliza dagoen lekuan egon zela.

«Aralar»era joan zen urrena, eta han, trikuharri sail bat aurkitu zuen. Ondorengo egun batez, Donostiako aldizkari batean zerbait idatzi zuen beraietaz. Ondoren, Donostiako ethnografi museoko zuzendariak Aranzadirekin harremanetan jarri zuen trikuharri haiek aztertu ahal izateko. Aranzadiko Telesforok berriz, Egurenekin jarri zuen harremanetan.

Geroztik, Joxemiel, Aranzadi eta Eguren hogei urtetan zehar ibili ziren elkarrekin, gure herritarrak Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan aurkituriko trikuharriak aztertzen.

Menendez Pelayo kondairagile famatua esana zen Euskal Herrian ez zegoela dolmenik. Joxemieli esker ordea, datu hori ez zela egia argi ta garbi frogaturik geratu zen. Ez hori bakarrik! Adarra gehiago joteko edo, beste inon baino trikuharri gehiago genituela (ta ditugula) jakin zen; lurraldearen proporzioan, noski. Ja! Hau komeria!

Garai hartan, liburuxka bat argitaratu zuen: Euskal Herriko Prehistoriaz, hain zuzen ere. Orduan, Hugo Obermaier eta Breuil irakasleekin harremanetan jarri zen. Bestalde, zerbait geroxeago, Bruselasko «Musée Royal d'histoire Naturel»en eta St. Germain En Lay-ko «Musée National»en aritu zen prehistoria ikasketak egiten. Denbora berean, Breuil irakasleak ematen zituen kiasketatara joaten zen: prehistoria ikasketak haiek ere.

Wilhem Smidt-en aholkuz, «Eusko Folklore» hilerokoa argitaratzen hasi zen. 1921-gn urtean hasi ere. Urte berean ekin zion «Anuario de Eusko Folklore» argitaratzeari ere. «Eusko Folklore» aldizkaritako lehen aletxoen argitalpena Joxemielek berak ordaindu zuen. Bainan gerora, «Eusko Ikaskuntza» elkartearen gain erori zen aldizkari horien ekonomia.

Wilhem Smidtek agindurik, «Anthropos Institut»en sartu zen, Euskal Herriko ordezkari bezala.

1922-gn urtean, Europako museo anitzetan ibili zen; museo ethnologikoetan batipat: adibidez, Paris, Munich, Berna, Bruselas, Amberes, Zurich, Budapest, Praga, Viena, Londres, Berlin, Copenage, eta abar.

«Conseil Permannete du Congrès International des Sciences Anthropologiques et ethnologiques»koa zen, eta kongreso anitzetan parte hartua da: nahiz Euskal Herrian ala beste lurralde zenbaitetan.

«Societé préhistorique française des Pyrénées Atlantiques»eko delegatua zen.

Euskal Herritik eta Españatik at, lehen hitzaldia Holandako Tilbourg hirian eman zuen. 1922-gn urtean eta frantzesez gainera. Bai alazankoa! Gaia zera zen: hots, «La Religion des anciens basques». Geroztik, Euskal Herrian bertan eta Euskal Herritik at emana da hitzaldi sail bat; eta egun ere, ematen dihardu. Gerra aurretik Parisen, Oxforden, Londresen, Bruselasen, Madriden, Zaragozan, Oporton eta beste hainbat eta hainbat lekutan emana da. Santanderko udako unibertsitate ikastaro batean ere hartu zuen parte: gerra aurretik eta irakasle bezala noski! Gerra ondoren berriz, Salamanca eta Madrilko unibertsitateetan eman izan ditu zenbait ikastaro. Baita Iruñako unibertsitatean ere eta egun ere bertan dihardu bere laurogei ta hiru urteetan.

Españako gerra hasita, bortxaturik, Frantziara ihes egin zuen. Han bizitu izan zen denboralditxo batetan: hamazazpi urtetan, hain zuzen ere. Pixkabatean Parisen bizitu zen, baina gehienbat Baionan, Biarritzen eta Saran. Hemen zegoelarik, «Ikuska» inbestigazio edo azterketak eratu zituen eta «Eusko Jakintza» aldizkaria sortu zuen. Bera Bidasoaz honuntza etorri ordukoxe ordea, biak —nahiz «Ikuska» ala «Eusko Jakintza»— lur jo zuten.

Eta amaitzeko, konta ditzadan bi anekdota. Joxemielen bizitza latz eta neketsuan zehar, zerikasia ematen diguten anekdota anitz aurki genezake: hasi haurtzarotik, jarrai gaztarotik, eta amaitu... (nork daki?). Oraikoan, horietako bi (bigarren aldikoak, noski) kontatuko dizkitzut irakurle. Hona hemen:

1931-gn urtean, gazte talde bati hitzaldi bat eman zion Joxemielek. Berehala konturatu zen, begi luzea eduki nonbait, komunistak zirela den denak. Eta horregatik, komunismoaz eman zuen hitzaldia, eta gainera berau ahal zuen arrazoi sakonenetan oinarriturik azalduaz. Gazte haiek hori ikusi zutenean, txaloka ta gorasarreka hasi zitzaizkion «ea nork eduki lezakeen horren aurkako arrazoirik» esanaz. Berak ordea, sotana soinean zuelarik lasaitzeko eta hitzaldia amaitu artean patxadan egoteko esan zien. Eta hitzaldia bukatzean (hitzaldia gaztelaniaz omen zen), zera esan omen zieten Joxemielek: «ahora queda perfectamente demostrado, que las supuestas bases del comunismo pueden ser defendidas únicamente por personas indocumentadas». Orduan ordea, gazte haien erantzuna bortitza izan zen: txistuka ta oihuka eraso bait zioten.

Hona hemen bigarren anekdota bat:

Madrideko «La Voz» egunkarian, Ernesto Gimenez Caballero gazetalaria «Eusko Folklore» eta bere urterokoaren aurka mintzatu zen. Bere eritziz, ekintza horietan zientzia benetakorik ez zen eginen. Arrazoia: zuzendaria sotanaduna zela (hots, Joxemiel Barandiaran apaiza zela). Gimenez Caballeroren artikulu indarge hari, Odon Apraizek erantzun omen zion egia benetakoak esanaz. Beste gauza batzuen artean, zera idatzi omen zuen Odonek gutti gora-behera: hots, zuk hala diozu, eta binbitartean Europako ethnologo handienak beren aldizkarietan euskal azterketa horiek goraipatu dituzte.

Egungo zenbait historigilek ere, adibidez Otazuneko Alfonsok, badu Ernesto Gimenez Caballeroren antzeko ideiarik. Hara zer dioen aipaturiko Otazuk argitaratu berri den bere «Igualitarismo Vasco»: Mito y Realidad» liburuan: «Cabe pensar que dada la condición religiosa de estos "historiadores", nos encontramos ante mentiras sí, pero mentiras piadosas al fin y al cabo» (Donostia, Txertoa-6, 9-gn orrialdea).

Eta amaitzeko esan dezadan egun kasik nehoiz baino gehiago begiratzen diogula nork esan duen, zer esan den baino. Hau bidegabekeria!

Trikuarrieta

Barandiaran Jauna.... Gora zui



Oraintsu berrogeitamar urte izango dira... artean mutil gaztea ni...

Ongi gogoan det zer nolako gogoz irakurtzen nituan Tolosa-n, nere aitak arpidez etxeratutako «Euskalerriaren alde» ta «R.I.E.V.» aldizkarietan, D. Jose Migel jaunak (Arantzadi ta Eguren-ekin zenbait aldiz) idatzi oi zituan jentillarri-azterketatako lanak... Aralar mendikoetakoaz bereziki...

Zer bultzada nere mendizaletasunari eragindakoak, Argarbi, Martxabaleta, Agauz, Enirio, Obioneta, Doniturrieta, ta beste Aralar-ko leku-izen ugariak, Barandiaran jaunak adierazitakoak... nun, nola, zer zitekean nik jakin naiez eta ezagutu naiez...

Orduntxe Barandiaran jaunaren izen ospetsua nigan beriziki kokatu...

Ezin aztu, geroxeago... orain 37 urte edo, Barandiaran jauna Bexenabarreko Ligiñaga-n erri-jakintza lanetan ari zelarik, erri artan eta inguruko mendietan ari laguntzeko, ikasle xume ta leiatsu gisa, izan nuen abagune ernegarria ta aberatsa...

Oraintsuago, Aranzadi-Elkartean, azken ogei urte auetan edo, irakasle ta langille aspergaitza izan degun bitartean, zenbait erakusbide sakon eta aburu bikain barreatu dizkigu inguruan ikasle jator izaten saiatu geranoi...

Labur. Urteen indarrez, nere denboran, Barandiaran jaunari gur-eskerra eskeintzeko ta txalo-sarta jotzeko goritzen jun da...

Esker ona azaltzeko une egokia dala gaurko au iduritzen zait eta... nereakin batera beste ikasle askoren naia beteaz... auxe esango det labur eta zeatz.

Gora zu Barandiaran jauna. Eskarrikasko; barne-barnetik eskarrikasko, gure erriaren alde egin dezun eta egiten ari zeran irakasletza bikañagatik!!

ELOSEGI-TAR J.

KANTALDIA DONOSTIAN

LURDES IRIONDO

eta

XABIER LETE

«Teatro Príncipe» aretoan

Ekainaren 15-ean, ostiralez

Arratsaldeko 7'30 tan — Gaueko 10'30 tan

Euskaltzaindiaren irakasle titulua



Esaminarako deia

Euskal irakasle lehen mailako titulua lortzeko, aurtengo lehen deiko esamina, Uztailaren 7an izango da, arratsaldeko 4retan, Arrasaten, «Escuela Profesional Politécnica» delakoan.

Eta hau iragarriaz batera aitzen ematen da, matrikulatzea Euskaltzaindiaren etxean, Bilbon, Ribera 6an, edo Donostiako Ordezkaritzan, Diputazio Jauregian egin daitekela, Ekainaren azkenerarte. Baita ere idazkiz, Bilbora, Euskaltzaindiaren «Caja Laboral Popular»eko 198 kontura matrikularen ordaina, 300 pezeta, igorriaz eta banku agiria Bulegora.

Esaminan zer eskatuko den jakiteko eta baita horretazko bibliografia, ikus «EUSKERA» XVII (220-222 orr.), Academia de la Lengua Vasca, Bilbao, 1972. Bilbon, 1973ko Maiatzaren 30ean.

(c) Ministerio de Cultura 2005

J. M. Barandiaranen ikerkundeak eta erlijioa

Lerro hauek lan eder eta bikain bati ezarritako ohardizun bat besterik ezin izan; omenaldi batek presaturik egindako aipamen soila. Bainan presak presa dirala, idazlan harrigarri baten egilea dugu gogoan, J. M. Barandiaran, ataundarra; eta gainera, beronek sutsuenik aztertu duen ikaskaia, hau da, «Erlijioen Historia» gure artean, kristautasuna baino lehenagoko garaietan.

Gure ikertzaile haundiak lehen euskal gizona du bere langai; gure herriak prehistoria garaian zuen kultura, izadiari buruz zuen ikusmoldea. Eta ikusmolde honen garrantzizko alderdi bat bezala, erlijioa.

Ikuspegi sakon eta aberatsa darabil Barandiaranek erlijiotasunaren azterketa egiterakoan. Berak dionez, ez dago munduaren ikusgunerik ez duen herririk, ingurubirako gauzen ikusgunerik ez duen gizatalderik. Ikusgune hori gabe, giza bizitzak ez duke zentzurik; eta pentsamolde hori leku guzietan erlijio sinalez josirik azaltzen zaigu, nahiz bakoizkako, nahiz taldekako arlo eta ekintza gehienak markatzen dituela. Horregatik, herri batetako erlijioaren azalpen zehatza egin nahi bada —Euskal Herriarena, guri dagokigunez—, ez dago beste biderik, lehenik kultura osoaren azterketa egitea baizik. Hona hemen Barandiaranen lanari egi-indarra, balioa eta nortasun zabala ematen dizkion oinarria.

ITURBURUAK

1922. urtean euskal mitolojiaren laburpena ziteken lehenengo saioa Bilbaon argitaratu zuen, «Eusko mitolojia» zeritzana. Beraz, berrogeita hamar urte baino gehiago dira Barandiaranek nola zen kristautasunaren aurretik gure erlijio arazoa laburki eman zuela. Erlijioen historia aurkezteko-era, asko berritu zuen gure artean, historia honi hain beharrezko zituen oinarri eta zutabeak ezartzen zizkiola.

Aztertu zuen zer zioten gure gaiari buruz arkeolojiak, euskal folkloreak eta historiak. Eta geroztik, hiru iturriok kontuan ditu beti bere ikerketaren azalpenetan. Eta hiru horietarik lan-metodu bezala iturri bat bakarra hartzen badu ere, azpian datza beti beste bi iturri besangek dagiten argibidea.

Historiagileek diotenari bagagozkio, idazle zaharren agiriak oso bakanak dirala esango digu Barandiaranek. Honen iritzian, Estrabon, Lampridio eta Prudentziok hemengo antzinako erlijioari buruz esandako hitz apurrek, ezer gutxi argi dezakete gure alorra.

Arkeolojiako aztarren askok, berriz, zerikusia badute siniskai eta siniskizunekin. Eta gai hauek garaian-garaian sailkatzen ditugula, lagun dizaigukete Euskal Herriko erlijio prozesoaren zantzurik nabarienak ezagu ditzagun; eta orobat kristautasuna sustraitu aurretik hemen bizi izan ziren erlijio muetak ere.

Hirugarren iturria etnografiako datoei leku bereizia ematea. Kontuan eduki, batez ere, Euskal Herriko mitoak, sinisteak eta usariozko oikuneak. Batetik, Elezahar eta tradizioak, ur-begi akituezina ditugu gure gaurko mitolojia osatzeko. Eta bestetik, gai hauek behar hainbateko arduraz erabiliaz gero, lan-metodu egokia daiteke izan —zenbait konparazio bide baino egokiagoa, dela Ipar herrietakoekin, dela Australiakoekin—, antzinako pirenetarren erlijioaren zenbait arazo argitzeko.

ZENBAIT IDEIA AIPAGARRI

Bizia bezain aberatsa den Barandiaranek aztertu erlijio mundutik ez da gauza erraza zenbait ideia aipagarri bereizten. Halaz ere, nagusien azaltzen diran gogoeta batzuk hemen agertzeari ongi derizkiot.

1.—Euskaldunek bere hauzoko herriekin kultura mailako hartuemanak etengabean izan dituzte; bainan bere nortasuna galdu gabe, hori delata. Beraz, alferrikakoa litzake antzinako euskaldunetan beste herrietan ez bezalako erlijioa bila nahia. Gauza beharrezkoa da orduko euskaldunek beren sinesteetan inguruko herriekin zerikusi haundia izan zutela uste izatea.

2.—Gizabidea erlijioan oinarriturik azaltzen zaigu. Lehen gizakien zenbait siniste eta gogotaren ezaugarriak aztertzen baditugu, patukeria, aztikeria eta irelukeria asko agertzen zaigu. «Hauen muin, erro eta oinarria, ordea, gizakiari eta ikusbirari gainditzen eta eragiten dien eta oinarritzen dituen izakiaz gogaiera eta sineste bat: Jainkozkoa, alegia».

3.—Erlijioa gizonaren bizitzari eragiten dion gogoeta bat da, gizonaren bizitza osoa osatzen duena; eta ingurugiroko zergauzetatik hartzen du bere espresiobidea.

4.—Goi paleolitos garaiko ezaugarriak —lurpeko aztarrenak eta labarrietako pinturak—, folklorean bildutako gaiekin aldera baditzagu, ikus daiteke nola berdintasun eta antza izugarria dagoen pintura eta mitoen artean. Mundu bera, tenplu eta bizileku berak batean eta bestean. Euskal mitoek paleolitos garaiko ihiztarien itzal eta irudi berberak agertzen dituzte eta aditzera ematen.

5.—Eguzkia, ilargia eta lurraren mitoak; orobat, baita, zeru urdinari, iturriei, hodeiei buruzko sinisteak ere, dirudienez Neolitiko garaian dute sarrera Euskal Herrian, indo-europeo kultura zaharraren influentzia pean.

6.—Erromatarren erlijioak eragin zion hemengoari eta askotan bere mitolojia-ezaugarrien bidez Euskal Herriko numenak aditzera eman zituen. Herrietako jeinuek eta ehortzetak egiteko erek erromatarren garaiko aztarrena dakarte berekin.

7.—Kristautasunari buruz askotan idazten duen ondorea: «Astiro baizik etzan kristautasuna gure artean sartu eta etzitun zearo erauzi al izan antxiñako erlisioaren aztarnak. Maiz, era zaharrak onartu zitun gogo berri batez iazteko... Ala ere, gogoz artu zuten euskaldunek erlisio berria, eta mendeak mende, erlisio ortan zintzoki iraun dute aren aginduak biotzonez betetzen, gaurdaño alegia. Oraintxe asi dira oikonomi, gizarte eta politika bizi-modu berrien eragiñera, irudi berriz antolatu barrutietan sartzen eta aiei darraizkien bizitz arekiko uste berriak onartzen, kristau erlisioaren gaiñean eraikitako antxiñako bizimodua baztertuz».

IKUSPEGIA

Baraidiaranek ez du amaitu gure erlijioen historiari buruz daukagun arloa. Berak dionez, ez du gordairuaren estalkia urratzen hasi besterik egin. Halaz ere, eman datoek gaurko euskal arimak barrunbean daraman alderdi sakon baten berri ematen digute, nahiz eta azpigune hori zatika eta hil zorian azaldu.

Berak egin lanek zerumuga zabala zabaltzen digute eta han, kristautasunaren aurretik euskaldunek edukitako erlijioaren zenbait zantzu eta marraztura. Areago, nabari dira gure kulturak antzinatean igarotako bidearen zenbait urrats.

Aitor dezagun zibilizazio zaharra lainopean datzala eta ludiaren mutureta ertz bizi batzuk dirala guk ikuskatu zantzuak. Bainan itxaro degu Barandiaranek ezarritako lan-metoduaz, berak sortutako kulturgintzarako tresna eta bere inguru ezitako ikertzaileen talde berriei esker gure lehenari buruzko ilundurak heurri batetan uxatuz joango gerala.

AIPAMENA

Gure erlijio zaharrei buruz Barandiaranek egin lanen osagarri bezala, beharrezkoa deritzat bere nortasunaren dohainak aipatzeari. Erlijio kultura zabalekoa: Alemanian eta Frantzian ikasketak egina, bere garaiko maisu sonatuenekin; «Erlijioen Historia» irakatsi zuen Gasteizko seminarioan; asko irakurria eta erlijio konparatuen barrutian ondo oinarritua.

Aparteko seriotasuna bere lanetan: iritzietan neurriko, zuhur eta inoiz ere arriskudun iritzi bat ematen ausartu gabea. Eskertzekoa benetan esku onetan erori izana hain gai irristalaria den erlijio tradizioa.

Gogora ditzadan bere bilduma zabala eta azterketa zehatza: urteen buruan aritu izana, etengabean, ikerlari zuhur eta langile; eta urteen buruan, baita, bere ondoreak berak idatzi ahal izana.

Eta nola ez hemen aipa, J. M. Barandiaranen erlijio nortasuna: bizitzez eta mintzatzeko eraz gure arteko erlijiodun gizon argia, iritzietan argi emaile eta esenpluz ikasbide eskergarria.

JUAN MARI LEKUONA

UZTAPIDEREN OMENEZ

Abeslari saioa — Ekainaren 9-an — Gaueko 10-etan

Lurdes Iriondo
Xabier Lete - Julian Lekuona
Peio eta Pantxoa - Oskarbi
Antton Valverde - Gorka Knörr
Benito Lertxundi

Bertsolari saioa — Ekainaren 10-ean — Goizeko 11-etan

Aurkezle: Lexoti - Lizaso
Gaijartzaile: Juan Mari Lekuona
Bertsolariak: Mugartegi
Arozamena
Xalbador
Mattin
Mitxelena
Lizaso
Agirre
Lasarte

MITXELENA
ORDULARI ETA BITXITEGIA
Dei honi jarraituz bazatoz
zure erlojua KANARIAS bertan
baiño merkeago erosiko duzu
Matxin Arzu, 1 ONDARRABI

AFAITE OPARIAK
GAI TA IRUDI POLITENAK
Victor Pradera, 2
(Esquina Zubieta) DONOSTI

CAM
Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrezki Kutxa
EUSKAL IRRATI SAIOAK
Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira joan etorriak
Baserriaren alde

Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EDARI GUZTIETATIK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkiña: 41 20 65 DONOSTIA

DEPURAGUA
DEPURACION DE AGUAS S. A.
Ur lanetan eta zereginetan berezia
edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko
zikindutako urak garbitzeko.
Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz, 44 BILBAO

(c) Ministerio de Cultura 2005

HARRI-AROKO ARTEA

Maisu izan dugun J. M. Barandiaran Jaunari

J. S. M.

Gure lurraldeetan, gizonaren arrastoa, behe Harri-arotik dator; baina artetzat har genezakean lanik, tresneriatik aparte, ez da aurkitzen Harri-aroaren erdi-aldera arte. 1970ean Axlor-en (Dima, Bizkaia) Barandiaranek bilatu zuen harrizko irudia dugu zaharrena. Mustier-aldikoa (Musturiense), 40.000 urtetik gora izango ditu. Homo primigenius-engandik **orain arte ezagutzen dugun agiri bakarra.**

Goien Harri-aroko kultura, 40.000 urtez lehenagotik 8.000 arte, Crô-Magnon izeneko gizakien garaia, askozaz ere hedatuagoa aurkitzen dugu, materialez ugariagoa, aberatsagoa eta honegatik dugu ezagunagoa ere. Garai honen barruan badira Auriñak-aldia, Solutre-aldia, Madalen-aldia eta Azilaldia **deitzen direnak, oso aberatsak artearen aldetik, eta arkeologoak Franko-Kantabriako kulturatzat aipatzen dutena. Gizonaren arterik zaharrena noski. Jakina, Harri-aro erdiaren azkenaldetik hasita goruntza.**

Artearen ugaritasunez Madalan-aldiak du garrantzirik gehien, batez ere hormetako pinturengatik: Etxeberri, Sasixiloaga, Isturitz, Altxerri, Ekain Goikolaua, Santimamiñe eta Venta de Laperra dira Euskal Herrian. Baina kultura honek gaurko Euskal Herria baino muga zabalagoak zituen. Frantziako Dordoina, Ariège eta Lot erresumetatik Espainiako Kantabriatik zehar Galiziara arte, hun haitzutotatik gora dira heziteka berdintsu honen aztarnak dituztenak. Harrizko tresna edo lanabesak, hezur grabaduak eta abar, teknika berdinean landuak daude, mutur batetik besteraino. Baina hormetako pinturak haitzulo gutti batzutan bakarrik daude. Agerian dago hezikera berdinezko girotik heldua dela. Bai tresnetan eta bai irudiak egiteko moldeetan, era berdinak sumatzen dira. Batetik bestera diren bereizkuntzak oso ttipiak bai dira.

Orduko gizonek beren garaiko abereak dibujatzen zituzten, ihizean edo arrantzan aurkitzen zituzten abereenak. Hauen irudiak hormetan, harrietan eta hezurretan egiten zituzten. Gizonak bizi ziren harpeetan eta berek erabiltzen zituzten harma, tresna eta lanabesetan. Inoiz eskulturak ere bai, buztinez edo hezurrez. Musikaren lehen arrastoak ere ordukoak ditugu, zeren Isturitzen eta Atxetan hezurrezko txilibituak aurkitu bai dira.

Horman dibujoak egiteko, azaltzen denez, honetarako toki egokiak aurkitzen zituzten edo bestela hormak lantzen zituzten. Honetarako ere bazituzten beren teknika bereziak: berezko formak aukeratuaz, Ekaingo bisontak egiterakoan bezala; edo aurrez egoki eratuaz, Altxerriko irudietan azaltzen denez; inoiz lerroak harriz irekiaz, Irturitzeko orkatza egitean bezala; hurrengo, irudiaren barru eta kanpoaldeak zulaturki, lerroa kanporuntz utziaz, Altxerriko orkatza bere lepoan axeria duela agertzen den bezala; baina, gehienetan, aha! den hormarik berdinena bilatuaz, beste gabe pintatzen zuten.

Esan dugunez, pintatzeko eran ere bada hezikera mugatu baten agiria. Molde berdinei jarraikitzen zaizkie, hasi Dordoina eta Ariège-tik eta Asturias alderaino, behinik-behin. Gaiak berdinak izatetik aparte, dibujatzeko estiloa ere berdintsua dute. Zeren, bazuten estilo berezi orokor bat, irudiak expresioz indartzeko parte batzuk handitu eta beste batzuk txikitu edo mehetuaz; tarte bat zuri utzirik prespektibak zaintzean, atzerago dauden zangoetan garbi azaltzen den bezala, pinturaren argizko alternantziak gordeaz.

Honez gainera, oraindik haruntzago joan gintezke. Errepikatze ordenamendu bat ere nabari da; horma luzeetako frisoak dibujuz hornitzea, hutsuneen betegarri irudiak formaz aldatzean, eta abar. Hutsune betetze hauek ere, batzutan familia bateko abere taldeez. Honela dira Altamirako (Santander) bisontak, Ekaingo (Gipuzkoa) zaldiak, eta batez ere Lascaux-ko (Dordoina) oreinak igerian, Rouffignac-eko (Les Eyzies) mamutak, eta Teyjat-en (Dordoina) bilatu zen hezur batean dagoen orkatz taldean batez ere.

Harpeak etxe zituzten gizon ihiztari haiek elkarren arteko harreman estuak zituzten, agertzen dugun Franko-Kantabriako lurretan.

Estilo gordetze hau, ez da Madalen aldikoa bakarrik, Aurinak-aldian ere nabaritzen da, garai honetan egiten ziren hezurrezko eskulturetan ikus genezakeanez. Alde batetik makila-burutzat joten diren irudietan eta bestetik emakumezko irudietan. Emakumezko hauek, Harri-aroko venus-ak deitzera etorri dira. Gainera, irudien estilisatzetik sinbolu abstrakto bihurtzen dira: Brassempouy (Landes), Lespugue (Garona goian), Laussel eta Siereuil (Dordoina) ditugu mailaz maila adigarririk berezienak. Baina hauen kideak ere badira, Willendorf (Austria) eta Savignano (Italia).

Glaziarren ondotik ezagutzen da arte estiloen aldaketetarako grina, sinbolu hutsen abstrakzioetara joaz, Azilaldira arte. Mas d'Azil-go eskola horrela bait da. Gure eskualdean Ermittia, Azpitarte, Urtiaga, Lumentxa, Atxeta... harpeetako hezurretan bilatu dira honetariko aztarnak.

Hauek ditugu giza-gogoaren lehen kezken agerpenak, plastikazko artearen adieraz-bidez heldu zaizkigunak.

Adiarazi dugun abstrakzio sinbolojia, hutsera bihurtzen da. Gizonak, bere aurrerapen ibilian, bizi moldeak aldatzen ditu eta hauekin batean doaz ideiak eta sinesmenak ere aldatuaz. Aldakuntza hauen baldintzei lotzen zaizkie arteak ere.

Lehenago ihizetik eta arrantzatik bizi zen gizona; Mesolitos garaiko Azilalditik abere hezitzeak ezagutzen ditu eta Neolitos garaian abeltzaintza izango zen gizonaren bizi-era nagusia eta larreak aprobetxatzeko tokiz aldatuaz ibiliko zen udako lekuetatik negukoetara. Arte lanak zeharo sinbolista bihurtzen dira Aurkitzen diren irudiak oso gutti eta irudipenezko zirriborro edo eskema hutsezkoak dira.

Garai honetan, monumentu berezi batzuk azaltzen dira: hilobitzat egiten dituzten trikuarriak, dolmenak, Naturalezaganako sineskera nabari dute, guziak sorkaldera begira egiten zituztenez, eta giza-hezurren artean lanabesak eta kutunak bilatzen dira, sineskera berrien adigarri. Lurrezko ontziak ere arkitzen dira apaingarri abstraktoekin. Baita ere metalezko lehen arrastoak. Eta, ondoren, kultura mota honi jarraiki, kromlech deitzen direnak, lurrean biribilean ordenaturik eta tinkaturiko harriak. Hauek ere, dolmenak bezala, geografia aldetik leku jakin baten barnean estilo berezia dute; L. Pericot-ek estudiatu dituenez, kultura hau, Atlantika-Pirineoetan mugatzen da, erromanizazioaren aurretik izan zitekean Euskal Herrian. Guttienez, esan genezake, euskal kulturaren sustrai zaharrak, hizkuntzarekin batera, garai hortatik datozkigula

Juan San Martin

ARTEA LEHEN HISTORIAN

1.—BEHARRA ARTE BIHURTZEN DENEAN

Gizona eta artea ez ditzakegu elkarrengatik berezi. Cromagnon gizona aipatzean, Lascaux, Ronfignac, Altamira, Ekain nahiz Santimamiñeko harzuloetako margoak datozkigu gogora; Lespugneko emakume-iduritxoa datorkigu oroitzapenera. Lehen Historiako artea, izatez naturalista eta ihiziak idurikatzen dituen arte hori, Paleolitos Haroan ehizetik bizi ziren gizarteri lotua dago herstuki.

Lehenik, arte formak noiz agertu ziren ez da garbiki jakina, noski, ez eta arte horren galtzea eta arte horren izatearen arrazoia. Baina beti harrigarri zaigu ihizien irudikatze horren xuxentasuna eta giza-irudiren karkiturizazioa.

Orain dela mende t'erdi ediren zen, aurkitu zen, lehen historiako arte honetan, zenbat irudi har daitezke egiazko arte-obratzat? Irudi denek dute etnologi-historia balioa, bainan era berean ote dute estetikazkoa?

Idi, zaldi edota arrain baten bozetoz buztinean egindako marra batzuk, 30.000 urtek aberasturik, ikustea hunkigarri zaigu. Bainan ez dute eskatuko, noski, Santimamiñeko nahiz Ekaineko zaldegiko irudiak ikusteak gugan, arrazoiz, sortzen duen zoramena eta beroa.

Aldien sakonetik irtendako giza obra batek egiten duen barne-zirrara, arkeologiaz zaharra delako eta kontenplazio baten ondoren sortzen den arte-zirrara ez dira gauza bera. Lehen-Historiako arrasto guziak ez dira danak artelan bikainak; zenbaitetan artetik oso urrun daude. Esbozoak, bozetoak, saiakera traketsak zenbaitetan, gaizeki ateratako irudiak. Denak ederrak eta jakingarriak ikasiarentzat, baina hori beste kupela bateko sagardoa da.

Daliren, Matisseren edota Velazquezen obretarik hoberenak hautatzen diren bezala, ez da erraz lehen historiako obretarik hautaketa bat egitea, zeren eta hori egiteko estetika-eritzpideak subjetiboak bait dira. Haatik, ahaleginak eginak dira, lehen historia-munduan ere kalitatezko obrak hautatzeko, aukeratzeko.

Pyrenne mendi edo Auñamendi iparraldeko harzuloetan aztertutako 727 zalditarik, 93 irudi nabarmentzen da bere kalitatez, hots, % 12. 118 basaidietarik, 16 dira kalitatezkoak, hots, % 13; 123 orkatzetarik, 20 dira kalitatedunak, hau da, % 16. 56 hartzetarik, 8, hau da % 14. Hitz batez, Toulouseko Institut d'Art Prehistoriqueko ikasleek aztertutako 1544 irudietarik esan dezakegu 236 irudi dela egiazko estetika kalitateduna, hots % 15. Zaldia, basakerra, orkatza, eta basaidia dira estetika maila gorena hartzen dutenak, agian beste asko baino maizago irudikaturik daudelako.

Dena dela, bai urrun geratzen zaizkigula numeroak eta hitzak berak ere lehen historiako arte-obra atzeman nahi dugunean. Nolako zentzua eta iaiotasuna, nolako dibujoa eta biziarekiko amorioa adierazten duten margo horiek!! Sotilak bainan sakonak, soilak bainan arras modernoak.

Artearen teoriarekiko bere irakasladietan Ricard Salvat-ek dioenez, erraza da Picasso moderno izatea, aurretik 20 mendeko historia eta anitz kultura baitu.

Eta hala da. Oraingo artistak bere gogoan daduka bildurik iduripenezko museo bat —Txillidak, Mirok, Picassok—, horrek babesten eta oinarritzen baitu horien lana, alderdi batetik bederen. Bainan ez zen horrela lehen historiagile artistarentzat, honek izadiaren aitzinean jarrera bat hartu behar baitzuen eta gainera bere aztarna erantsi hari eta horretan, bereganatu eta bere egin. Arte sorketaren lehen uneak inoiz baino minberagoak izanen ziren, noski, hala nola erdiminak.

2.—LEHEN HISTORIA ARTEA, HISTORIAN

Bainan pixkanaka, bereganatze nahi horrek, gizona zenbaitetan simboloetara eta beste zenbaitetan irudikatzera eramanen du. Horrela joanen da kimatuz, muskilduz; gerora geometria, apainketa, abstrazioa nahiz irudiktzea izanen da.

Ehiztariak, sorginak edo aztiak ihizien urratsa eta keinua maiteko du, bai eta harria ere, nahi gabe ia, bere egunen historia egiteraino. Honela keinua, beharra, arte bilakatzen da eta, zenbaitetan kalitate handiz.

Horrela, bada, Altxerriko harkaitzetan egindako marrak hain dira soilak eta abstratoak, non uzten baitute oso atzean Tapiés baten obra; Bruniquel eta Santimamiñeko ihizi estilizatuek izadi edo naturaren aztertze handiagoa adierazten dute eta hormaren koskez baliatze handiagoa Egyptoko nahiz Mesopotamiako animalistena baino; eta Almadengo signuak sakonagoak dira Miró nahiz Klee-ren grafismoak baino.

Lehen Historiaren lekuko hauetan, estilizazioa, marrareriko zaletasuna, sotil izan nahia eta koskaz baliatzea guzi hauek dira berezkuntzarik nabarmenenak, estetika alderditik.

Bestalde, arte obra hauek izenik gabekoak dira, bainan uka ezinezkoa da «maisu» baten eragina, harzulorik garrantzitsuenetan batik bat. Hala Rouffignac eta Lascauxko maisuak. Dena dela, haien izenak isiltasunik isilenean izkutaturik daude. Nolako apaltasun-ikasbidea ematen digutela, gero, kultura munduan mugitzen garenoi. Gaur egun, izenpe edo firma batek koadro eta eskultura berak baino gehiago balio bait. Horra Lespugneko Venus eta Mentogoa, Tell-ko irudia edo Afualingskopko aztia, hori adieraziaz.

Joandako aldiren ilunbetan den arte honek, erro sakonak izan ditu gure Herrian ere. Aranzadi Elkarteari esker batez ere, etnologia azterketa izugarri bat egin da, eta aurrera doa egun. On litzateke estetika ikerle edo inbestigadore batek horiekin batera lana egin ahal baleza, Herrian ediren den, aurkitzen den materiala aztertuaz. On eta interesgarri eta, ene ustez, egungo Euskal artistaren arimarentzat ondorio izugarrizkoa; zeren ez baitezake aisa arterik sor, bere artearen iturri eta erroak ezagutzen ez dituenak.

Horra Oteiza. Jende gehiago behar dugu. Gorengo mailan aztertuko duen eta interpretatuko duen jendearen oldarra eta aldi berean, gure harzuloak denen onerako eta probetxurako antolatuko dituen jendea.

Honetan, anitz lan egin da gure Herriran. Baina denon artea, askoz gehiago egi genezake. Gure artearen erroak sakonak eta sendoak dira; aztertu egin behar ditugu, ikusi eta ikertu. Ekain edo Santimamiñe behin ikusteak, museo nahiz liburu bat askotan ikusteak baino gehiago du; gaztetu egiten du.

EDORTA KORTADI

Altxerrin agertu ziren arrain bi

(c) Ministerio de Cultura 2005

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA

UGARTE

Urbieta, 66 DONOSTIA



Kontu emen! Euki gogoan!

Adiskide ta etxekojaunok!
Zuen enmazteentzako esku-erakutsirik onnea. Zuen sukalderako apaingarri
Eltze azkarra. Asadora-Freidora RADAR. Erre ta prejitzeko aukerakoa
SUPERCACEROLA A PRESION «RADAR»
Juegos Espátulas y juego Cubierto «RADAR»
LANTEGIA - INDUSTRIAS RADAR ESKORIATZA (Gipuzkoa)



YANY

SUKALDEKO MUEBLEAK

EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.

Urrutizkiña: 891754

ZALDIBIA (Guip.)



Bankaetxe on batek arazo asko koponduko dizkizu.

Zenbat eta eskurago orduan eta errezago.

Banco Guipuzcoano

gertuan daukazu, zure zerbitzuan prest eta gogotsu.

(c) Ministerio de Cultura 2005

LEHEN HISTORIA ARTEAN

(eta II)

Aurreko lan batetan Lehen-artetik zer nolako artelanak heldu zaizkigun agertzen saiatu ginen. Arte ibilkorraren adibide batzuk ere jarri genituen.

Gaur arte haren esanahiaz esan direnaz mintzatuko naiz. Gaur aurrean dituzun artelan hoiek harkaitzetan egindakoetatik aukeratu ditut.

(Lan hau egiteko B. Otaegiren liburua erabili dut, hango bilduma aski ongi iruditu bait zait).

ARTEAREN ESAN NAHIA.

Lehen-Historia ikasketak hasi zirenean lehen gizakiez zedukaten iritzia hau zen: Haiek erabat basati zirela eta haien arteak gizadiaren umealdia adierazten zigula.

Geroz ordea, artelan berriak agertzen joan direnean eta etnologiak bere argia eman duenean ustez aldatu dira lehen historiagileak.

Zer esanahiari begira jarri direnean teoria asko sortu da. Haietatik batzuk hemen dituzu:

1.—ARTEA ARTEAGATIK

Lartet ta Christy-k eman zioten hasiera iritzi honi. Ez da, hauen iritziz, gauza gehiegiren bila ibili behar lehen artea aztertzean. Denbora pasa zeudenean egindako lanak bait dira, nahiko ehizi eginda gero.

Lehen gizarteaz eduki litekeen ikusmenik arinena da hau, eta etnologoek gaur lehenean dirauten herriak aztertu ondoren ikusi duten konplejidadeak isilarazi ditu beste hauek.

Arte ibilkorretan, hezur eta bestetan hauek dioten bezala egindakoak ere izango dira noski; ez dago ukatzerik.

2.—AZTIKERIA

Salomon Reinach izan zen Goi-Paleolitos haroko harkaitz arte lanei majiku esanahia erantsi zietena.

Izan ere arte lanetan hau agertzen da:

Harkaitzetako irudi gehienak ihizienak dira.

Hauetatik askok beren gorputza gezi edo fletxa eta mantxez zulaturik du.

Harkaitz irudiak harzuloetako toki izkutuenetan gorderik daude.

Ihizi gehienak jaten zituzten ihizietakoak dira.

Iritzi hau dutenen ustez, lehen-gizonak, marreztutako ihiziak benetakotzat zeduzkan eta ihizi-irudi hori menpera bazezakean egitazkoa ere gero menperatuko zuen ustea izanen zuen.

Abate Beuil-ek (1877-1961) benetako indarra eman zion iritzi honi.

Gizarte haietako errealitate osoa esplika ez badeza ere, ziur aski indar handia zukeen aztikeriak orduan ere.

3.—IHIZI GURKETA

Batzuen iritziz ihizi batzuk gurtuak izatea ez litzake harritzeko gauza, herrien edo familien gordetzaile bezala hartuaz. Hitz batetan Totem bezala hartuaz.

4.—ERNARITASUNEZKO AZTIKERIA

Gizarte haien janaria ihiziak ziren. Ihizi ugari izatea beharrezkoa zuten. Gure zulotetako ihizi irudi batzuk ernari daudela dirudi.

Gizakietara ere zabal daiteke ihiziaz dioguna.

Beharbada "Ama Jainkosa" baten gurketa adierazi ko lukete seksu aztikeria hoiek. Zein ote zen lehengoan aipatzen genituen "Venus" haien egitekoa?

Gizakien irudiak ez dira ugariak harkaitz irudietan. Batzuetan ez da erraza gizonaren itxura ikustea. Agertzen dira baita zakil eta alu diruditen marrazkiak ere. Iritzi hau dutenak badute, noski, bere arrazoia honela pentsatzeko; gehienak ere ikuspegi bakarretik dena ikusi nahia litzake eztabaidarako gaia.

5.—LEROI GOURHANEN IRITZIA

Honek dio: "Goi-Paleolitos haroko artelanak ezin daitezke gaur lehenean dirauten herriek eskaini dezaizkiguketen datoez interpreta. Orduko artegintza, garai haietako ikuspegiz bakarrik azter daiteke jator eta zientifikuki".

Ateratzen dituen ondorenak ateratzeko bi oinarri hauek darabilzki:

—Ihizi irudiak zein aldetan dauden eta zenbat neurtzen duten.

—Beste ezagugarriak (lerro, puntu, gezi, tab) nun eta nola dauden.

Berak bi sail berezten ditu, zaldi saila edo "A" eta bisonarena edo "B". "A" sailean ahuntza eta oreina ere sartzen dira eta "B"-n larre behiak ere bai besteren artean.

"A" sailekoak sarrera eta tokirik izkutuenetan agertzen dira, nahiz eta erdi aldean "B"-koekin nahasirik agertu.

"B" sailekoen artean emakume irudiak ere agertzen direla-ta Seksu esanahi bat duela saiiketa honek, dio. Hala "B" sailekoak sinbolo emeak lirake eta sinbolo arrak "A"koak.

Gainerako beste ezagugarriak ere bi sailetan banatzen ditu: gezi edo fletxa, lerro eta puntuak "a" sailekoak lirake, arrak alegia eta hiruki edo triangulo, rectangulo eta abar "b" sailekoak, emeak beraz. Egon ere "a" saileko ezagugarriak "A" irudiak dauden alde beraietan daude; orobat "b" eta "B" ere.

Honela "a" edo "b" sailekoaren ordez gizon bat edo emakume bat ager daiteke.

Goi Paleolitos haroko artegintzak, lehen gizaki haien mundu ikuspegia eskaintzen digu, abstrazio mailan eskaini ere. Ikuspegi hortan seksoak oinarrizko zerikusia luke.

Estetika aldetik ere azter daitezke lan hauek Edorta Kortadik zerbait agertzen digu aldameneko lan batetan. Erraza omen gaur artista moderno izatea, erdiminak ordea garai haietan.

Behin baino gehiagotan Jose Migel Barandiaranek honen antzeko zerbait esan digu: "...gure lanaren bidez liburu bateko hizki edo letrak ezagutzen ari gara, hitzak ere osatuko ditugu behar bada, bainan ez gara sekula irakurtzeko gai izanen". Gauden sasi-interpretatzaile-garairako e g o k i a agian, bainan gogorra ene belarrientzat. Ez ditut alferrtzat jotzen hainbat jakintsuk egindako lanak, ez eta ere Don José Migel berak azken 60 urtetan eskaini dizkigunak.

Gizonaren bizitzan, "sekula ez" batek hauspo zulatuari gertatzen zaiona dakar. Egindako lana aurrera bide dela derizkiot eta egun hauetan bere herritarrek D. Jose Migeli eskaintzen dioten omenaldian bertan izaterik ez badugu ere, bihoakio lerro hauez gure eskerrona.

Zuk letrak nola ondo bil ederki erakutsi diguzu eta irakurtzeko bidean jarri. ESKERRIK ASKO D. JOSE MIGEL!!!

Marzelino Aizpurua





Altxerriko (Aia-Orio) elur-orein bat. Bere lepoan azeria. Biak marrazturik daude.



Ekaineko orein marraztua. Ikus gorputza saiteska balego bezala marreztua eta adarrak aurrez.



EKAIN-en diren hartzak. Handienak 75 zm ditu. Ikus gorputzean duen mantxa.

(c) Ministerio de Cultura 2005

Irun



Azpeitia



Ezpeleta

Zerain

oiartzun

IV. BERTSOLARI JAIALDIA

Usarioari nahi diogu eutsi. Horregatik urte oro bezala, aurten ere, laugarren aldiz hain zuzen, bertsolarien kanta saio jator bat eratu nahirik gatoz.

Jaialdi bat egin nahi genuke: betrsolaritzari buruz beti izan ditugun asmoekin leial izanez; eta, eratzaille guzien erabakiz, gure artean bizi den Uztapideri eskeiñia, gaiñera...

—oOo—

Herri maillako kultura, bertsolaritzaren barrutian, bertsolariek ezezik, entzuleke ere osotzen dugu. Eta bertsolaritzaren eragite hutsez aparteko jaialdi bat prestatzean, kantariak bezala bertso-zaleak ere ditugu gogoan.

Leku eta giro bereizi batetan, gaiak jarri eta saioa egiteko molde aukerazkoetan, han izango geranok behar dugu eduki benetako jaialdi bizia: bertsolariak egiazko sortzaille diraia, eta entzuleak ere nolapait egiazko egille, azpi-giro bizi batez laguntzen dutela.

Era hontan, bertsolari eta entzuleek denek izan dezagun zer egin, zer ikas eta nun goza, gure kultura herrikoiaren urte oroko loratze eta agerketan.

—oOo—

Eta aurten Uztapideri eskeintzen diogu gure jaialdia.

Kantuz ari zela mututu zitzaigun txoria. Nahiz entzuleentzat, nahiz eratzailleentzat, aurtengo bertsolari egunean dugun gauzarik nabarmenena Manuelek uzten duen hutsunea da. Hutsune haundia.

Baiñan guretzat hain mingarria den eskasia hori, ahal dugun neurrian hornitu nahi genuke. Hutsunea bete, gure esku dagon bide bakarrean; bertsolarien familiarteko giza-legean: Oiartzun inguru gauden bertso-zaleek Uztapideri omenaldi sutsu bat egingo diogu, berak hain gogoz eskuartzen zuen bertsolari egunean.

—oOo—

Pozgarria zaigu bertsolaritza maite duten guzieri gure asmoen berri ematea. Eta zihur gaude jendeak ere gure asmoen araberan erantzungo duela.

lezo

ODOL-EMAILEAK

Maiatzaren 17an izanak dira Allerru Elkarteraren Liburutegian odola biltzen Gipuzkoako odol emaileen elkartekoak eta herritar franko joan zela esan behar. "Heri denak, beharrezko duen odola erdiesteko eskubidea du eta guk emateko obligazioa"; honela dio elkartearen lemak. Ia ba urrengoan emaile berri gehiagoa animatzen den.

HITZALDIAK

Maiatzaren 21, 22 eta 23an, Goiko Elizako aretoan, haur-sikologiari buruzko hitzaldiak izan dira. Antolatzaileen izena uste dut badakidala, baina hankarik ez sartzearren ez dut adieraziko. Herriko gurasoentzat antolatu eta erdaraz, alajainena, eta ez bakarra, hirurak!; ikusteko gaudenak! Ea antolatzaileak animatzen diren eta laster, euskaraz noski, astoei udarako galtza moda adierazteko beste hitzaldi pare bat antolatzen duzuten; belar mordo haundi bat eramatea ez ahaztu.

Gure herrian informazioak oso ongi funzionatzen duelakoz, azken egunean jakin nuen beren berri. Hala ere, ez da dena hain gaizki egiten, antolatzaileen propaganda isstema oso ongi eraturik bait dago, eta hontan, bederen, zer ikasirik badugu:

"Hontaz libururik interesgarrienak holako eta halako dira eta hor aldamenean dituzue nahi badituzue ikusi; erosi nahi badituzute, berriz, txartel hoietako bat bete eta egun batzuk barru etxean izango dituzue". Alegia, hitzaldiak txartela betetzeko, txartela liburu bat erosteko eta liburu hori bere atzetik dozenaka saltzaile pelma gau ta egun etxeko atea joaz liburuak edo zer nahi saldu nahiaz ibiltzeko.

Jendea nun bait ere hor bildu omen zen. Eskerrik asko, antolatzaileak, bidali ez duzuten informazioagatik.

TURISMO-LETREROAK

Dakizuenez, "Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa" delakoak (batzutan "Gipuzkoako Aurrezki Kutxa" izenaz bataiatzen denak), probintziako herri guzietako sarreretan bertako tokirik interesgarrienak aipatuaz gainera, bere propaganda egiten duten letrero batzuk ipiniak ditu.

Berriro arte, Lezokoak "Santuario" besterik ez ion, baina orain, ordea "Parroquia de San Juan Bautista, S. XVI / Basílica del Santo Cristo de Lezo / Calle Mayor". Egiaren amoreagatik lehengoa baino osatuagoa dela esan behar dut, baina baita desprestigio bide izan litekeala ere; izan ere elizak arkitektura edo-ta eskultura aldetik interesagarri izango dira, agian, baita gure Kale Nagusia tipiko aldetik ere, baina etxekoandreak arropak kale-aldean zabalduko ez balituzte, kale gainean etxetzar, raskazielos hoietakorik ez balego, gauez argi gehiago balitz, ur-tuberia ipini ondoren zuloak berehala tapatu eta kalea berriztatuko balute, alkantarilla jariorik ez balitz, eta abar, eta beste, orduan bai, ikusgarria izango litzake, arrazoi batengatik batez ere, tabernarik, orain artean, ez dagoelako (lehen sagardotegiak omen ziren ugari); ez du honek esan nahi, inolaz ere, mozkorrik ikusten ez denik.

Azkenik eskaera bat C.A.P. delakoari; zera, hizkuntza gehiagotan jartzeko bere letrerook, noizean behin Beheko Elizako makuluak ikustera etortzen diren madrileño bihotzekoaz gainera, inglesen bat edo txinoren bat etortzen bait dira gure herrira, eta bai, maiz xamar, bere kutxetan diru pixarrak gordetzen dituen euskaldunen bat edo beste ere.

SISTIAGANEKO PELLOK

mutriku

EGUN HARTAN...

Lizartza, 1906ko negua. Abenduko egun hotzak eta ZELAIN baserriko sukalde epelean haur jaio berri bat. Egunak eta urteak joan eta haur txiki hura apaiz egin zen. Izenez eta batez ere izatez.

Egun batean gureganatu zen. Bai, egun hartan... Mutrikuratu zen, zer harrera eduki ote zuen? Ez dakit, ez. Bakarrik Zubeldiatar Pedro jauna, apaiz berria zela.

Mutrikuratu zela diot. Ez hori bakarrik! Mutrikura etorri eta Mutrikun sartu egin zen herriaren barren muinean, herritarraren egunoroko jardunaldian. Behartsu, baztertuta, zapalduta eta zigortuta zeudenen inguruan.

Mutrikun, Mutrikoarrentzat, hontaz gehiago luzatzea alferrikakoa dela uste dut. Denok ezagutu genuen. Berak, «Zubeldia-tar Pedro Jose, Apaiza» izendatzen zuen. Hori horrela da baina Mutrikuko jendeak, jende apalak, ez zuen behin ere era horretara iñork ere ezagutu. Hain berea zuen bere «Don Pello» edo bere «Pello jauna» izenarekin.

Zahar eta gazteentzat eta batez ere umeentzat, han genduen non-nahi gure biotzeko «Donpeillo», esaten genduen bezela. Benetan jaun agurgarria, apaltasunez betea. Zer dohai ederra hau, harrokeriarik gabea, euskaltzale garbi-garbia.

Oroitzen naiz, oroitzen gara zutzaz, ezin ahaztutako On Pelloz. Herriaren zati bihurtu bai zinen ene eta gure maixu. Lehen esan dut ez dakitala zer modutako harrera eduki zenuen hemen, Mutrikun, baina bai ordea, badakit, Mutrikuk zuri emandako azken agurra. Egun hartan, orain dela hiru urte...

Bai, gogoratzen gara eta oroituko gara, nahiz ta gure kaleetan zuretzako oroigarri-harririk edo eta beste horrelako irudirik altxa ez izan. Ez, ez daukagu ez On Pello zure izenean kalerik Mutrikun eta horrelako gauzarik.

Gauza hoiek gure egunetan beste batzuentzat bait dira. Hau egia da, baina badakit baita egia dela ere, ziur nago, horrelako gauzarik ez zaizula batere atsegin. Hain ziñan hain apala.

Guretzat oroigarririk onena zure erakutsia da. Zure ardura eta maitasun hura guretzako, gaztearentzako. Benetan gogoko zitzaizkizun gazteen laguntza eta gorabeherak. Kezkatzen zinen bai gure etorkizunetaz eta orain konturatzen naiz goizoegi aldendu zenuela Mutrikutik.

Ez, ez duzu oroigarririk Mutrikun baino Mutrikuarrek bai ordea zu bere barruan. Hain zaude bai Mutrikuko etxe bakoitzean. Han agertzen zara denoi begira, orrialde txiki haietan: «NI BIZI NAIZ... esaten diguzu. Hortan uste osoa dut. Zure erakutsiak, orain artean bezelatsu, gerora ere eman beza fruitu ugari.

Zuk «On Pello» lotu zenigun Lizartza Mutrikurekin, zure herritxo kuttuna zure azkenengo lur maitearekin. Gure artean gelditu zinen, hain zinen gurea.

Une hauetan ene pentsamenduak zure etxeko eta baserritarrak dira, senide eta lagunak, beuroi: gure agurrik beroenak. Sor ditezen gure artean baserritar maite haien jarraitzalleak.

Hiru urte bete dira bai, baina zu bizi zara, horregatik: Egun haundirarte «Pello jauna».

Ene agur eta oroipenak euskal bidetan ipini nindunari.

ULAZIA

getxo

EUSKAL KULTUR ASTEA

Maiatzaren 7, 9 eta 11 egunetan Itxas-Gane taldeak antolatutako II Euskal Kultur Astea ospatu zan Algortan. Aurreko batean esaten genduanez, aste hau hiru hitzaldi eta kanta-saio batez osaturik zan, baina kanta-saioa ezin ospa zitekean, Bizakiko Agintariek, behin eta barriz, debekatu egin ebalako.

7 egunean Debako Eskolako Jose Larramendik emondako hitzaldia ekin jakon asteari. Hitzaldi honek «hitza eta irudia» eban izenburua eta hiru partetan moldaturik zan: arte kritikatzailearen problematika, artistaren problematika eta ikuslearen problematika. Egia esan, gaia ez jakun egokia iruditu aste honen barruan eta gure iritziz nahiko ulergaitza izan zan.

9 egunean Abel Muniategik, bertsolari ezagunak, gaurko euskal literaturaz berba egin euskun. Lehendabizian oraingo idatz-literaturazko azalpen labur bat emon eban, bigarrenean, ordea, ahozko literaturazko azalpen sakonago. Oso hitzaldi gogokoa izan zan, noski.

11 egunean Andoni Cayerok, Deustukon Uibertsitateko irakaslea, Euskal Ekonomia-aurrerapenaren baldintza sozialetaz egin eban. Hitzaldi honen aria hau izan zan: Oinharrizko punduak, Ekonomiaren aurreratzeko gizarteko giroaren garrantzia; Industriatzearen eta ekonomia sozialaren etapa barri bat eskualdetan, Eskualdearen aurrerapena inguru horretan, eta gure ekonomiaren egoera. Benetan, oso hitzaldi ederra, nahiz mamia nahib azala oso onak izan ziran.

Entzuleekikoa, Algortako jendetza kontuan edukirik ezin esan daikegu jende asko joan zanik.

Aste honen gauza baliosa entzule guztiei emondako inkesta izan da. Ea erantzuten daben guztiek!

Gure ustez astehau frutukorra izango da.

JUANJO

pasai san pedro

DANTZARIAK

Pasaiko Kaian «hospitalillo» deritzan lekuan, Trintxerpeko ITXAS-ALDE dantzari taldeak jaialdi berezi bat eskaini berria digu. Bi ordu terdiko saioa, halajaña. Ongi dantzatzen dute eta badute zer dantzatu aukera ederra. Trintxerperen izena goratuko du dantzari talde honek. Tartean, atseden alditxoan, Kepa Doneko ikastolakoek erramu sorta eskaini zieten herri arteko batasun eta anaitasunaren ezaugarri. Zorionak Neira jauna eta gainontzekoek hortan segi.

ARRAUN GIROAN

Herriko jaialdietan, C.R. Sampedrotarrak eraturik Espaiñiako batelen txapelketaren estropada ikusteko zoria izango dugu. Gipuzkoako txapelketan lehenen ateratzen denak izango du gure aldetik laguntza eta animazioa. Horrelako txapelketa batean bertakoa izango ez bada ere pozik txalotuko dugu Gipuzkoaren izenean agertzen dan taldearen lana. Beraz, badakizue, eta erne egon.

BERRIAK

Gezurra badirudi ere gure herrian ez zen osagilerik bizi. Orain JAKA eta ARRIZABALAGA-TAR LEONARDO JAUNA gure artean izango dugu. Ongi etorria bada eta pozik gaituzu zu bezalako euskaldun osagile bat gurekin izango zerala jakiteaz.

Herriko festak gertatzen ari dira. Nolakoak izango ote dira herriko festak? Ikusten danez, beste urtetako diru laguntza berdina izango dute antolatzaileek. Interbentoreak ez ote daki gauzak goruntz dijoazela? «Carestía de vida» delakoa ez ote dugu bada festa mailan gogoan hartu behar? Mutillak, festaren alaitasuna ere galtzen joango ote gera ba? Pasaiak gehiagorik merezi du, baina... Betiko bainak.

IBON

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Getaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005

errenteria

ORERETA KULTURA-ELKARTEA

Maiatzaren 27an Oñatin izan zen eskolen-arteko euskal dantzarien jaialdian Oreretako bi dantza taldeek parte hartu zuten. Amasei taldek ekin zioten bere saioari. Zortzi, hamar urte artekoak ziren, eta beste zortzi, hamar eta hamalau urte bitartekoak.

Oreretakoak azkeneko honetan saiatu ziren. Bata Xexilio Gastesik ardura duen mutillen taldea, eta bestea, neska taldea, M.ª Mar Taberna arduratzen dena. Mahai burukoek talde hauei lehenengo saria eman zieten. Zorionak eskeintzen dizkiegu bi talde hauei.

EREINTZATIK

Ereintzako kultura taldeek bukaera emango diote ikastaroari. Kultura talde hau 200en bat umetxok eta gaztek osatzen dute.

Ikastaroa ongi bukatzeko asmoz, jaialdi bat eratu dute ekainaren 20an Gaztedi elkartean. Talde bakoitzak urtean zehar ikasi duena eskeini ondoren afari bat izango dute. Urtea ongi buka ezazue. Hori opa nahi dizuegu guztioi.

JAIOTZAK

Errenterian hain ezagun dugun Pako Ibargurenen, emazteak neska eta mutiko bat izan ditu. Zorionak.

Mikel Ugalderen emazteak ere, Pilartxo Olaskoagak, mutiko bat izan du. Zorionak.

EZKONTZA

Ekainaren 9an Gau Ikastolako irakaslea den Jose Luis Erzibengoa, Irunen ezkontzen da. Gure zorionak senar-emazteei.

MAHASTI

bergara

Agurra. San Pedro eta Santa Mariñe eleiz naguziko kanpaiak ibarretan, mendietan eta ibaietan zear, zabalduko dituzte bereziki bergarar oiartzunentzat beren otsak.

Lantegietako otsak, keak, suak eta berarekin daramazkien buru austeak, utzi, ixildu eta itzaliko ditugu egun gogoangarri auetan eta murgilduko gera ereserki, esku pelota, diru erakusketa, igariketa eta abar atsegiñez beterik erri zaar ontako jai auetan.

Bertaratzen zeraten guztiori opa dizkitzuegu, noian ez?, egun alaiak, emen arkituko gaituzue betiko bergarar apaltazunian.

Sorterritik urruti eta urrutizunagaitik ezin etorri zeratenoi, badakigu zuen oroimenak Anguapeko langille eta paketsu esartzendako erri maite ontan daudela.

Lerro auen bitartez, munduko alderdi guzietan arkitzen zeraten bergarar guztiori, dijoazkitzue, besarkada maitekor anaikorra.

Mutillak! Bergaran Pazkoak dituk eta mortalak jaarek!

Nora zoaz? Bergara'ra Pazkoaz.

MENDIKOI

baztan

BERTSOLARIAK

Joan den aldian erran genuen gure bertsolari besta Ekainaren 17-an egin beharra dela eta bertsolarien izenak ere agertu genituen. Egun hortan Mattin ez da etortzen ahal beste herri batera joan beharra delakotz eta orai ahetzetarraren ordez Mugartegi ariko da, beraz Elizondoko bertsolari besta hortan ari beharrak direnak hemen izendatuko ditut.

XALBADOR, LASARTE, AZPILLAGA, MUGARTEGI

Erran bezala Ekainaren 17an Elizondoko Antxitoneko trinketean eta aratsaldeko 5etan Jai hau Nafarroako Diputazioko "Institución Príncipe de Viana"ren laguntzarekin egiten da eta biltzen dena Elizondoko Ikastolarako izanen da.

KULTURA JAIAK

Denek badakite nola "Lizardi Kultur Elkarteak" antolaturik Tolosan ospatu dela "II Euskal Kultur Hamabostaldia". Maiatzaren 20an ospatu zuten azkenengo eguna euskal dantzarien bilkura batekin. Arizkundar mutil-dantzariak ere besta eder horri indar pixka bat eman beharrez azkenengo egun hortan Tolosan izandu ziren. Arrera on bat egin zaukuten tolosarrek eta baztandarrak pozik ibili ginen, lehenik Euskal-Mezan, gero karriketan barna dantzaldiak eginez eta gero Zikiro-Iatean Zugarramurdiko adiskideek ederki prestaturik. Bazkaria hoberenean zagoelarik erasan zuen baina jendeak ekaitzari gogor eginez eta handik batere mugitu gabe zikiroa jan arte. Gero ez baitzuen atertzen denak Merkatuko plazara joanik bazkariari agaballa eman zitzaion kafiak eta likurrak hartuaz. Gero kantu eta dantza gazte jendearen umore sanoa ederki agertu zelarik.

Arartsaldean Beotibar frontoian dantzarien ekinaldia, zortzi dantzari-talde aritu zirela eta hoien artean Arizkungo mutil-dantzariak.

Tolosan egun zoragarri bat iraganik etxeratu ginen, bihotzak alegera, oroitzapen eder batekin eta berriz ere holako egun goxo bat igarotzeko nahikeriarekin. Zorionak "Lizardi Kultur Elkarteari" jaiaren antolatzale eta goraintziak tolosar eta beste lekuetatik etorri ziren euskaldun guziei eta atzendu gabe gurekin batean karriketan barna ibil ziren mutil eta neskatxa gazte polit hoiei.

MARIANO IZETA

eibar

UZTAPIDE

Aurreko ileko azken igandean, Astelena pelota tokian, ospatu zan Uztapide bertsolari bikainaren omenaldia.

S.C.R. Arrate-k Eibarko Umeen Euskal jaiaren amabostaldia artu zuan egokiena bezela, jaialdi au antolatu eta aurrera ateratzeko.

Lan asko egin dute Arrate taldekoak. Aste batzuk leenago, inguruetako errietan ibili dira Uztapideren omenaldiari buruz txartelak banatzen eta ate asko jo bear izan dntuzte ongi gertatu eta ospatu zedin jaialdi au.

Egun batzuk aurrerago, Loyola erri-irratiak Arratekoei egin zien gaidera batzuen bitartez, toki guztiak salduta zaudela jakin genuen eta zutik egoteko bakarrik salduko zirala sarrerak ere adierazi ziguten.

Azkenez eldu zan eguna eta, ura erantzuna Uztapideri! Badakigu, 30 urtetan, S. Pedro guztietan etortzeak duen lanak ez duela ordainik, baina maitasun ta esker pixka bat ematea bidezkoa zan.

Astelena osoa bete-betea zegoan eta aien erdian, Egileor, Martin, Narbaiza, Mitxelena, J. Agirre, Arozamena, Gorrotxategi, Lasarte, Xalbador, Lazkano eta Mugartegi, amaika bertsolari jator eta zorrotzak aurkitzen ziran.

Gai jartzale bezela Juanito San Martin jaunak, eibartar oso ezaguna danak, asiera eman zion jaialdiari eta Loyola irratiak zabaldu zituan amaika aien ziri zorrotzak alderdietako guziei. «Naiz gorputzez ez, bai biotzez» esan zion oso ongi bertsolari batek Uztapideri.

Gaiak batzutan emanak ziran, beste batzutan, bertsolari bakoitzak askatasuna zuan nai zuan puntua ikutzeko. Batzutan bakarrak abesten zuan, besteetan bikoteak edo iruko taldeak. Zortzikoa ez erabiltzea bearrezkoa zan batean, bestean erabili litzakean.

Oso puntu politak eman ziran eta arrigarria zan nola abesten zituan jendeak, bertsolariarekin batean, azken onek bigarrenez esaten zituan itzak, bukaerako unean.

Txalo beroak izan ziran danentzat eta nola ez, Uztapideri buruz egiaren bat esaten zanean askoz beroagoak egiten ziran txaloak.

Bukaer aemateko, amaika agur luze xamar lirakeala iruditu zitzaien eta Narbaiza eibartar bertsolariaren itzekin agurtu ziran jaialditik. Narbaizak esan zuana, gutxi gora beera auxe da:

«Manuel txalo auek biotzean gorde ta gaurkoa izan da zure lanen orde zure inguruan gu gaur omen gaude,

.....

biotz-biotzetikan, agur Uztapide.

« ESKERRIKASKO EIBARTARRAI ETA GAIÑERAKO GUZTIEI. PORTAU ZERATE. ESKERRIKASKO», izan ziran Uztapideren itzak.

KOLDO ORMAETXEA

Zoritxarrez, ez dira pozgarriak berri guztiak eta Koldo Ormaetxea, gure artean orain dala denbora gutxi izan zana, Argentina ila dala jakingo dezue danok, noski. Ala ere, uste det gure samina azaltzea Etxe-maitea-ko etxekoandreari, bere erritik urrun ainbeste urtetan bizi izan arren aaztu ez degunari, bearrezkoa zala. Pozean bat eginda izan geran bezela, ez bearrean ere ala gaude Maritxu.

MOTZAK

Mensu, Irungo margotzaile, sari asko irabazitakoak, Aurreski Kutxan du bere lanen erakusketa bat.

—Peli Aldazabal-en txapelketa Ekainaren 10ean ospatuko da Arraten.

—Ekainaren 17an. Eguerdiko 12-etan. Zezen Plazan, Endañeta, Aretxa ta Yurrebaso arrijasotzaileak izango dira. Batzen dan dirua Moguel ikastolaren alde izango da. Laguntza pixkatxo bat mesedez.

KRUZETAtar ODILE

pasaia

LEHEN MINTZALDI SAIOAK EUSKAL KULTURAREN GAIEI BURUZ

Pasaia Antxoko «Biblioteca Municipal»-ak eraturik, Donostiako «Caja de Ahorros Municipalaren» babespean.

Ordua: Arratsaldeko 8etan.

Lekua: «Caja de Ahorros Municipalaren» kultur aretoan, Pasaia Antxon.

Egunak: Ekainaren 11tik 15era. 1973.

11.—Astelehen:

ETNOGRAFIA.—Luis Pedro Peña Santiago.

Hernioko erromeriak, Hondarrabiako Santiagoak, Astigarragako Santiagoak eta San Adrian leize-zuloa. Leienda, historia eta ohitura. Herri debozioa. Sinbologia. Mintzaldi hau filminez osatuko da.

12.—Astearte.

HISTORIA.—Federiko Zabala jauna.

Euskal Herria erromatar historiagile eta geographoen arauera: Baskonak, Barduloak, Karistioak eta Autrigonak. Oihartzun bailararen erromanizatzea. Erromatar bideak. Oarso. Arditurriko meatokiak eta azken bilaketak.

13.—Asteazken.

Herri Literatura.—Juan Mari Lekuona Jauna.

Ahozko literatura. Legeak, Inprobisazioa. Teknika. Bertsolaritzaren bilakaera XIX eta XX gn. mendeetan. Maisu nagusiak. Beterriko eskola. Bertsolaritza Oiartzungo bailaran. Ahozko izkribaturiko literaturen harremanak.

Mintzaldi hau euskaraz izanen da, eta zenbait bertsolari arituko da.

14.—Osteguna.

Juan San Martin jauna. EUSKAL LITERATURA.

Euskal Literatura, gaur. Aintzindariak. Erromantizismoa eta modernista deritzan literatura. Nobela, ipuina, teatroa, saiakera, poesia eta kazetaritza.

Mintzaldi hau euskaraz izanen da.

15.—Ostirala.

MUSIKA.—Javier de Aramburu jauna.

Euskal kantua. Nondik sortu eta nola gorde den: bi eritzi. Gregoriano deituaren musikaren influentziaz. Kanpoarekiko harremanak. Amodiozko kantua. Erromantzeak. Lanbide kantuak. Sehaskakoak. Ume eta jolasekoak. Bertsolariak kantari. Emakumearen nondinorakoa kantuan. Erlijiozko kantuak. Gaurko kantuak.

Mintzaldi hau OSKARBI taldekoen jardunaz osatuko da, zeinek hogeiren bat kanta abestuko dute.

ixurtza

TONTORREKO EUFEMIA GEREDIAGA

Tontorreko Eufemia Gerediaga eta Soloetaren Urtebetetzea euki dogu maiatzaren ogei ta zazpigarrenean, Ixurtzako eleizan.

Apaltasun aundiagaz eruan eban bere bizitzia Eufemia andreak. Bere kristau eginbearrak ondo beteta.

Euskalerritik bein be urten bakoa zan, eta jakiña, ixurtzatar jator-jator zalarik, euskeria izan zan beti bere izkuntza oso-osoa.

Bizitza guztian baketsua izan zanez, azkenengo ordua be baketsua euki eban, eta konformidaderik aundienagaz utzi eban mundu au Tontorrean, sinistedunen Itxaropenagaz. Goian Bego.

Lourdes eta Xabier Donostian

Jakin dugunez, hilabete honen barruen, ekainaren 15ean, hau da, datorren ostiralez, Lurdes Iriondo eta Xabier Letek bi kantaldi luze eskeiniko dituzte Donostiako "Teatro Principe" aretoan.

Denbora asko da bi kantari hauek Euskal Herri osoan zehar kantuz hasi zirela. Hortaz zazpi urte inguru bada, eta ordutik honuntz bazter hauetan gauza asko gertatu eta jokaera asko aldatu da. Hala ere, euskal kantari batzuek, horien artean Lurdes eta Xabierrek,tinko iraun dute beren kantagintzan.

Kontradizio, zailtasun eta hutsune asko gainditurz, sortuz, aldatuz, ikasiz joan behar izan dute. Borondate oneko hasierako lehen-maila hartatik, aurreruntzeko urrats tekniko eta bestelakoak eman behar izan dituzte. Aldaketa eta billaketak ez dira iñundik ere errazak izan ohi; hala ere, lanean diraute, eta, behar bada, iñoiz baiño heldutasun eta kemen gehiagorekin.

Hori guztia horrela izanik, Teatro Principe-n bi funtziotan eskeiniko diguten saioari guztiz interesgarri deritzagun. Esan digutenez, kanta berri eta nobedade butzuk badituzte; oro har, beren gaurko kantagintzaren itxura ahailk eta osoena eskeini dezakean programa bat osatu omen dute.

Bestalde, bazen denbora frango Donostian era hortako errezitalik ematen ez zutela. Ongi pentsatzen jarrita, errezital luzerik Donostian iñoiz eman ahal dute? Donostiak, dirudienez, bai onerako eta bai txarrerako bere berezitasunak baditu, eta horiek kantari hauen eginkizuna asko baldintzatu ohi dute... joan zen udazñenean Trinitate enparantzako aktuazio eragotziarekin gertatu zitzaien bezala.

Hala ere, oraingo hontan gauzak aurrera omen doaz, eta datorren ostiralean, ekainaren hamabostean, Lurdes Iriondo eta Xabier Lete entzutera joan nahi duten donostiar eta ingurutakoek aukera berezia izango dute.

Funtzioak, arratsaldeko 7,30etan eta gaueko 10,30etan izango dira. Suerte on bat opa diegu gure bi kantariei.

IRASTORZA



Eibar



Ormaiztegi



Ataun

(c) Ministerio de Cultura 2005

Barandiarango Joxemielekin Elkarrizketan

Ataungo herria omenaldi eder bat egitekotan da On Joxe Migel Barandiarani. Hori dala-ta, Ataun aldera jo dugu, maiatzeko arratsalde sargori eta beroan. Gu irixtean, Madridera biali beharreko azterketa lan batzuk gertutzen ari da Joxe Migel. Elkar agurtu ondoren, bere mahai aundiaren inguruan bildurik, elkarri izketari ekin diogu zuzenean...

—Nundik sortu zitzaizun, On Joxe Migel, etnolojia eta antropolojia gaietarako irrika hori?

1912 garrengo urtea zan, hain zuzen. Gasteizko Seminarioan ari nintzen ikasten. Banituen, ordea, kezka, duda eta korapillo batzuk. Erlijioari buruzko buru hausteak ziren. Eta apaiz egin aurretik askatu nahi nituen arazo haiek. Nik, bestalde, denetik irakurtzen nuen, denetik idazten baitzen; hortarako askatasun aundia zegoen orduan. Gaiñera erlijio arazoa zen gehienbat eztabaidatzen zan arazoa. Pentsaera aldetik burruka haundia zegoen, baina alderdi onik bazuen egoera harek.

—Zer egin zenduan duda eta korapillo hoiek askatzeko?

—Alemaniara joan nintzen: Leipzig-ra. 23 urte nituen! Wundt zegoen irakasle hango unibersidadean. Wundt, Engels-en jarraitzaile sutsua zen, materialista. Erlijioaren sorrera eta eboluzioa explikatzen zituen. Hiru illabete igaro nituen ikasketa hauetan.

—« Experimental Fisiolojiaren » aita deitu izan zaio. Zer moduzkoa zan irakasle bezala, Wundt?

—Egia esan, idea aldetik oso itxia zan. Bere iritzi eta arrazoiek ez ninduten batere betetzen. Erlijioari buruzkoek batikpat. Orduantze sortu zitzaidan apaiz izateko benetako gogoa eta apaiz izatea ere han erabaki nuen...

—Harrigarria benetan, ateo baten klaseetan apaiz izateko gogoa sortzea! Eta gero zer egin zenduan?

—Sikolojiazko ikasketa hauek egin ondoren, fisikako irakasle egin ninduten Seminarioan. Gasteizen. Ez nintzen apaizen artean...

—Eta zuk, ba al zenduan fisikarako afiziorik?

—Lehenago fisika eta kimika ikasiak nituen. Experimentu batzuk egiñak ere bai... Alemaniako aldizkari bat artzen nuen: "Annalen der Physyck".

—Eta fisikako experimentu hoien artean, radio bat ere jarri zenduan Ataunen. Ez da hala?

—Bueno —Joxe Migel irriparrearі eutsi ezinik— lehen aitatu dizudan aldikzari hortan, radio-galena baten planoa agertzen zen. Galenarekin, hertz ondak detektatzen zirela banekien. Nik, galenarik ez ordea. Azufre hautsa ekarri nuen eta plomo barra batzuk erosi. Bata eta bestea eltze batean jarri nituen egosten, eta aleazioa ondo atera zan. Kondensadorerik ere ez eta, kuaderno baten orri artean, txokolate papera sartu eta kondensadorea egina zegoen. Jostorratz bat, alambre batzuk, eta azkenik, etxetik kanpora, zuhaitz batera, antena... Hori zen guztia.

—Gora beherarik izan ahal zendun radio honekin?

—1914ean, gerra piztu zan Europan. Gerrako parteak zein ordutan eskeintzen ziren ere jakin nuen. Frantsesek, Eiffel-ko dorretik bialtzen zituzten berriak; Norderney-tik alemanek eta Carnarvon-dik inglesek. Hemen telegrafoak moztuak zeuden, eta gerrako partea morsen ematen zuten. Nik lehenik morsen idazten nituen eta gero inglesera edo frantsesera edo alemanera bihurtzen. Berehala zabaldu zan espionajea egiten nuelako zurru-murrua. Honela igande arratsalde batez, Donostiako Telegrafoetako gizon bat etorri zitzaidan: "Hemos sabido que usted tiene un receptor de radio telegrafía"... "Vaya usted a ver, y verá cómo ese aparato no puede funcionar" erantzun nion. Orduan, arratsaldeko bostak ziren, eta inglesek partea ematen zuten. Radioa martxan jarri nion eta harri eta zur gelditu zen gure gizona. Isilean gordeko zuela guztia agindu-az, han joan zan berriro Donostiara.

—Gero pakean utzi al zintuzten?

—Bai zera! Gero gobernadorearen eskutzitza etorri zitzaidan espionajea egiten nuela esanaz. Etortzen ziren guztiak ez zuten pentsatu ere tresna txiki hartatik ezer entzuterik zegoenik. Beste batean berriz, guardia zibillak, Lazkao parean; ea ezagutzen al nuen Barandiaran. Neu nintzela. "Tenemos orden de retirar su aparato de radio", haiek. Nere etxera joateko eta erretiratzeko. Baina ez ziren ausartu. Ez zekiten noski radio bat nolakoa izan zitekean ere. Azkenean, hainbeste gora-beheren ondoren neuk, kendu nion antena... eta kitto!

—Ataungo jendeak zer zioen zure radio horri buruz?

—Etxetako konbersazioak entzuten nituela pentsatzen zuten zenbait ataundarrek. Hala zioten Ataunen: Radioa euki nuen bitartean, askoz haserre eta eztabaida gutxiago izan omen zirala Ataungo etxetan.

—Hasierako gaiari berriro helduaz, gehiagotan atera ahal zinen atzerriko Unibertsidadeetara?

—1922 berriro Alemaniara joan nintzen. Otsailletik udazkenera arte Lehenbizi Koloniara jo nuen. Kolonian Grâbner-ek "Etnolojiako Metodoa" irakasten zuen. Handik Munichera: Frobenius eta Splenger zeuden Munich-en. Gero Leipzig-ra, museoak ikustera. Museoan ikasten ari nintzela jende guztia neri begira egoten zen. Zergatik, ote? Laster konturatu nintzen, nere jazkeragatik zela. Sotana kendu eta hango apaizen gisan jantzi. Gero Berlin, Kolonia, Akisgran, Amberes... e.a

—Zu batetik zientzia gizona zaitugu, apaiza bestetik. Zer diozu hontaz?

—Gu Seminarioan geundela, integrismoa zen nagusi, apaizen artean. Ni, neu, "La Constancia", "Pelayo" eta "Siglo Futuro"ren harpidedun nintzen. 1914ean apaiz egin nintzen. Eta gotzaiak, hala esan zigun: apaizak politikan sartzen denean aski kalte egiten du. Autoridadea galtzen du. "Nik denentzat bialtzen zaituet apaiz...". Hoiek horrela, baja eman nuen aldizkari guztietatik. Botoa ematera ere ez nintzen joaten. Baina nere lagunik gehienek ez zuten jokatzen berdin, gauza hauetan zoritxarrez. Gero azterketak egiten hasi nintzenean, marmarra ugari izan ohi zen neregatik. Dinamarka edo Noruegan hasi izan banintz lan hoiek egiten, iñork ez zukeen hitz erdirik ere aterako, baiña Euskal Herrian hasi nintzen... eta hori zan nere pekatua.

—Eragozpen asko izan dezu orduan zure lanetarako.

—Batzutan bai, bestetan ez. Adibidez Madrid-ko "Real Sociedad de Ciencias Naturales"ko billeretara batzarretara agertzeko, sekulako trabak eta eragozpenak jartzen zizkidaten.

—Beste galdera bat On Joxe Migel. Teilhard de Chardin-ekin hartu-emanik izan ahal zendun?

—Abbé Breuil-ekin izan nuen adiskidetasun haundia. Berak bultzatu ninduen Euskal Herriko prehistoria aztertzera. Teilhard de Chardin-ekin behin egon nintzen, Parisen nengoela. Paleontolojiako Institutoan hitzaldi bat eman zuen Teilhard de Chardin-ek. Breuil-ek aurkeztu zidan eta han agurtu nuen aurrenengo eta azkenengo, aldiz.

—Brueil-ez gaiñera beste maixu haundiren baten adiskide izan ahal zaitugu On Joxe Migel?

—Bai, Aita Schmidt-ena. Asko lagundu zidan. Euskal Herriko etnolojia azterketa egitera bultzatu ninduen. Vienatik etnolojiako kuestionarioak bialtzen zizkidan. Honela, eta gotzaiak eman zidan baimenarekin eta beste apaizgai, batzukin ekin nion etnolojia lanari. Gero gerra etorri zen.

—Nun egon ziñan hemengo gerra denboran eta gerra ostean?

—Baionan urte bete egin nuen, hiru Biarritzen eta Saran hamairu urte luzetan egon nintzen. 1953-an Ataunera bihurtu nintzen berriro.

—Zer moduz moldatu ziñen Europako bigarren gerratean?

—Ipar Euskal Herrira irixten, berehala hasi nintzen lanean. Baina, alemanek, gerra sortu zan bezain laster, Ipar Euskal Herria ere hartu zuten. Baina, Alemaniako "Institut Für Kultür Morphologie"-tik idatzi zidaten. Han denak mobilizatuak zeduela eta ia "Paideuma" aldizkarirako lan batzuk bialiko ote nizkien. Nik, badaezpada ere Frantziako museoen zuzendariari idatzi nion Parisa, lehenbizi frantsesekin hasi bai nintzen lanean. Lana lasai egiteko, erantzun zidan harek; gai eta lan hoiek gudaz zer ikusirik ez zutela eta. Gero alemanek, salbokondukto bat eman zidaten.

—Gerraz zer ikusirik ez duan galdera bat: Izan ahal zendun hartu-emanik Baroja eta Unamunorekin?

—Barojarekin eskutitzen bitartez izan nuen hartu-eman. Erlijioen kondaira sakondu nahi zuela esaten zidan. Bestaldetik, berriz, ni Berara joatea nahi zuen. "Itzea", bere etxea etnolojiako eta prehistoriako lanak egiteko ikastetxe bezala eskeintzen zidan. Ni, apaiz bat, garai hartan ez nintzan ondo konponduko Pio Barojarekin eta ezezkoa eman nion. Azkenengo eskutitzean, bere illoba Julio Caro Barojaz hitzegiten zidan.

Unamunorekin, behin bakarrik hitzegin nuen aurrez-aurre. Diktadura garaia zen eta Unamuno Hendaian zegoen. "Euskal Zaleen Biltzarra" ospatu zen Saran eta Eusko Ikaskuntzako ordezkari bezala joan nintzen Julio Urkijorekin. Han zen Unamuno ere. Bere lengusu Telesforo Aranzadiz galdegin zidan. Ez, ziran ondo etortzen.

—Bukatzeko, On Joxe Migel, etorkizunari buruz, zer diozu?

—Zientzia mailan, sekula baiño hobeto ari gera. Lehen baino lankide gehiago gera. "ETNIKER", euskal etniari buruz ikerketa lana egiten duen elkartea sortua daukagu. Nafarroan, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan zabalduta daude "Etniker"ko lankideak. Ipar aldean ere hastekotan gera Etnografi azterketak sistematikoki egin beharra dago. Gauza bakoitza sistema oso baten zati da. Horrela, sistema oso hortan agertzen diren gure kulturaren agerpen guztiak estudiatzen ditugu: familia, lana, jolasa, hizkuntza...

—oOo—

Hiru ordu luze ari gera On Joxe Migelekin. Eguzkia ere San Gregorioko mendien atzean itzalia da. Gauaren iluna gainean dugu. Euskal Herriaren gau ilunean krisailu gerta dakigula D. Joxe Migel.

Benantxio Otaegi

«Perune-Zaharra», Joxemielen jaiotetxea Ataunen

Ataungo «Sara» etxean bizi da



Atxaga - Barandiaran - Artamendi

(c) Ministerio de Cultura 2005